



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 15a

6 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP) buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Iruñeko espetxeari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (28. or.).

---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP) buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP) buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñea, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP) buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2.or.).
- II. Helburua, norainokoa eta metodologia (3.or.).
- III. Mugak (4.or.).
- IV. Esparru juridikoa (4. or.).
- V. NUPen historia laburra (5. or.).
- VI. Ondorio eta gomendio orokorrak (7. or.).
- VII. Unibertsitate kudeaketaren azterketa (9. or.).
  - VII.1. Orokortasunak (9. or.).
 

Unibertsitatearen antolaketa orokorra

    1. Esparru juridikoaren azterketa laburra (9. or.).
    2. Unibertsitatearen xedeak eta finantzaketa (11. or.).
  - VII.2. Unibertsitatearen zifrak (12. or.).
    - VII.2.1. Ekonomikoak (12. or.).
    - VII.2.2. Ikasle-irakasleak (14. or.).
    - VII.2.3. Inbertsioak eta inbentarioa (17. or.).
    - VII.2.4. Sailen bilakaera (18. or.).
  - VII.3. Eraginkortasunaren azterketa (20. or.).

VII.3.1. Irakaskuntza (20. or.).

VII.3.2. Ikerketa (22. or.).

VII.4. Kostuak (23. or.).

VII.5. Bateriaezintasunak (23. or.).

**VIII.** NUPeko etorkizunaren aurreko hausnarke-tak (23. or.).

**1. eranskina.** NUPek behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioak (25. or.).

#### **I. SARRERA.**

1996ko urtarrilaren 31n jaso genuen Nafarroako Kontuen Ganbaran Nafarroako Parlamentuaren Bozeramaleen Batzarraren erabakia. Honela zioen, hitzez hitz:

“ Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak aurkeztu duen idazkia ikusirik, Kontuen Ganbarak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kanpoko irakaskuntza-auditoria egitea eskatu baitu, HONA ERABAKIA:

1. Hauxe eskatzea Kontuen Ganbarari: aipatu auditoria egitea, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak joan den urtarrilaren 19an egindako idazkian eskatu zuenaren araberak.”

Aipatu Parlamentari Taldearen idazkiak esaten du unibertsitate-erakundeari interesatu egiten zaiola “unibertsitate-errealitateari buruzko tresna eta adierazle objektiboak izatea. Horri bagagotziorio, kanpoko irakaskuntza-auditoriek erakutsi dute tresna baliagarria direla ezagupen erabilgarria izateko unibertsitate-plangintzarako.

Ildo horretatik, Unibertsitate Kontseilua goi mailako irakaskuntzaren kalitatea neurtzeko proiektuak egiten ari da, eta ebaluazio protokoloak ezartzen”.

Horiek horrela, Kontuen Ganbarari eskatu dio kanpoko irakaskuntza-auditoria egin dezan, unibertsitateko langile eta baliabideei buruz.

Eskakizun orokor hori dela-eta, aipatze aldera esaten dira erabil daitezkeen alderdiak, hurrengo gaiei buruzkoak: plantilendako irizpide eta ereduak Unibertsitatean, sailetan eta titulazioetan; irakasleen bateraezintasunak; kostuak eta ratioak sailka, titulazioka, eta abar...; ekipamenduen horniketa eta aprobeitxamendua; eta garapenerako eta titulazio berriendako aurreikuspenak.

Eskakizun hori dela-eta, egoki deritzogu hurrengo ñabardura edo iruzkinak egiteari:

- Auditoria-mota berriak sortu dira azken urteotan, beraz, definitu gabe daude oraindik, ez dute doktrina-gorputzik, oinarri hartzeko.

Hartara, kalitate-auditoria, energiari buruzkoa, gizarte-auditoria, ingurugiroari buruzkoa, eta abar aipatzen dira.

Ildo beretik ulertu beharko litzateke irakaskuntza-auditoria.

- Egun, ahalegin handia egiten ari dira Europan unibertsitate-irakaskuntzari balioa emateko. Horren baitan kokatu behar dira Unibertsitate Kontseiluak bultzatu dituen lanak, eskarian aipatu bezala.

Lanoi hasiera emateko, Unibertsitateen Era-kunde Ebaluaziorako Programa Esperimentala egin zuen Unibertsitate Kontseiluak 1993-1994 aldian. Ondoren, Europako Batasunaren proiektu pilotuan hartu zuen parte Espainiak, 1995ean, goi mailako irakaskuntzaren kalitatea neurtze aldera. Bi horiek abiapuntutzat hartu eta Unibertsitate Kontseiluaren arioz, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Unibertsitateen Kalitatearen Ebaluaziorako Plana ezarri du (abenduaren 1eko 1947/1995 Errege Dekretua). 1996ko otsailaren 21eko Aginduz egin zen lehen deialdia.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Programa Esperimentalean hartu du parte eta Kalitatearen Ebaluaziorako Unitatea sortu 1996an, Unibertsitateen Ebaluaziorako Plan Nazionalaren hurrengo deialdira aurkeztu ahal izateko.

Kontuen Ganbarari eskatu zaion lanaren eta aurrean aipatutakoen azken helburuak pareka badaitezke ere, lan-metodoak eta helburu hurbilak, ez. Horri buruz azpimarratu behar da aipatzen ari garen lana erraztu egingo litzatekeela metodologia amankomuna edo ahalik eta hurbilena izanez gero.

Hartara, Unibertsitate Kontseiluak sustatu dituen lanen planak norbere ebaluaziotik abiatzen dira eta kanpoko ebaluazioarekin osatzen dira gero, eta titulazio bat edo titulazio-multzo bat baloratu nahi izaten dutenez, lan-talde bereziak

eratzea eta denbora-iraupen luzeagoa behar izaten dira.

Kanpoko langileek egindako lanaren aurrean gara, bistan da, eta beraz, ezin da Unibertsitate Kontseiluak bultzatzen dituenekin parekatu.

## II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA METODOLOGIA.

Aurreko epigrafean aipaturako parlamentu-eskaria betetzea da gure lanaren helburua.

Hala ere, eskariak biltzen dituen "item erakusle"ak gehiegitxo dira lan bakarrean ekiteko eta, askotan, bideragaitzak, egun ditugun informazio-sistemekin.

Horiek horrela, Kontuen Ganbara honek uste du txostenaren helburu nagusi behar duela unibertsitate-errealitateari buruzko tresna eta erakusle objektiboak ematea eta Unibertsitatearen jarduera orokorraren kanpoko ebaluazioa egitea, Nafarroako Parlamentuak, gero, unibertsitate-erakunde dela-eta bere esku ditueni buruzko erabakiak hartu ahal izan ditzan, edo horiek erraztea, behintzat.

Hargatik, azterketa egiten saiatu gara gure lanean, gure esku ditugun baliabideen baitan eta behean aipatzen diren muga barruan:

- Unibertsitatearen antolamendu orokorra.
- Unibertsitateko ikasle-irakasle, datu ekonomiko, inbentario eta sailen bilakaerarekin zerikusia duten zifra nagusiak.
- Irakaskuntzaren eta ikerketaren eraginkortasuna.
- Unibertsitate-jardueren kostuak.
- Irakasleen bateraezintasunak.

Azken oldozpen batzuk gehitu dizkiegu azterketa horiei, NUPen geroari buruz, eta NUPen bilakaeraren historia laburra ere.

Aipatu epigrafeetan egin dugun azterketak erantzuna ematen die Nafarroako Parlamentuak eskatu dituen alderdi nagusiei.

Beharrezkotzat jo ditugun datu guztiak aztertu ditugu gure lana egiteko, eta NUP sortu zen urteetakoetaraino ere heldu gara, hala fortunatu denean. Hartara, aurrekontu-kitapen guztiak eskatu ditugu, langileen eta ikasleen bilakaera, jarduerari ekin zitzaionetik, eta abar.

Era berean, egoki iritzi dizkiegun dokumentuak eskatu ditugu, sail eta zentro guztiei gutun bana idatzi zaie, hala nahi izan zuten sail-zuzendari guztiekin bildu (Ingeniaritza Elektrikoa eta Elektro-

nikoa, Kimika, Gizarte Lana, Soziologia, Ekonomia, Geografia eta Historia, Osasun Zientziak, Matematika eta Informatika eta Psikologia eta Pedagogia), eta instalazioak ere bisitatu dira, batzuetan, elkarriketen osagarri.

Hauxe ere azpimarratu behar dugu: guk eskatu dizkiegun informazioetako batzuk emateko, administrazio zerbitzuek aldatu behar izan dituztela informatika-programa jakin batzuk, ordura arte zituztenekin ezinezko zelako eskatutako informazio guztia eskuratzea.

1996ko maiatza eta azaroa bitartean burutzen zelaiko lana.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko Kontuen Ganbarari eman dioten lankidetzagatik.

### III. MUGAK.

Hurrengoek jarri dizkiote mugak gure lanari:

- Oraindik laburra den unibertsitate-bizitzaren eragina eta aztertutako jarduera asko eta asko denboran bat datozela Unibertsitatea abiatzeko garaiarekin.

- Unibertsitate-eremuan dagoen kontabilitate eta informazio sistema ez da nahikoa. Kostu-kontabilitaterik ezak ez du biderik ematen NUPen egindako prozesu bakoitzaren kostua ateratzeko.

- Unibertsitate-jardueran izaera kualitatiboa duten alderdi batzuk baloratzen zail dira, berez: hezkuntza, ikerketa.

- Ez dago kanpoko estandar edo adierazlerik, unibertsitate-jarduera haiekin konparatzeko. NUPek berak ere ez du prestatu jarduteko bide edo irizpide orokorrik, plantilaren garapenari buruzkoan edota sailkako banaketari buruzkoan, adibidez.

- Unibertsitate-jarduera ebaluatzeko bide emango duten helburu zehatz eta neurtzeko modukorik ez dago.

- Irakasle eta ikertzaile ekipoen erabilera kontrolatzeko prozedura sistematiko orokorrik ez dago.

- Ez dago NUP ezarri eta garatzeko plan orokorrik, ezta erabakiak hartzeko garaian oinarritzat hartzeko moduko irizpide estrategikorik ere.

- Irakaskuntza Antolatuzeko Plana (IAP) egiteko modua eta ikasturtean zehar ez eguneratzea. Esan digutenaren arabera, aurrera egin dute gaur egun IA. egin eta eguneratzeko orduan.

- NUPen ezartze-prozesua: hamar urte baino gutxiagoko epean lau errektore-talde ezberdin izan dira eta lehenengo sei urteetan ez da kudeatzailerik izan.

### IV. ESPARRU JURIDIKOA.

Unibertsitatea "entitate publikoa" da, berezko izaera duena. "Unibertsitate-autonomia" delakoa jo dezakegu haren nolakotasunik garrantzizkoena.

Autonomia hori Konstituzioak aitortzen du, 27. artikuluan: "Autonomia aitortzen zaie Unibertsitatei, legeak ezarritakoaren arabera"; eta Unibertsitatea Eraberritzeari buruzko Legeak (UEL), bere 2. artikuluan, halaxe dio: "Unibertsitatearen jarduren eta haren autonomiaren oinarria askatasun akademikoaren hatsapenean datza, zeina katedra, ikerketa eta azterketa askatasunetan nabaritzen den."

UELk, bere 3. artikuluan aipatzen du, aipatu Legearen arabera, unibertsitateen autonomiak bere baitan hartzen dituela, besteak beste: estatuak egitea; aginte-organoak hautatzea; aurrekontuak landu, onartu eta kudeatzea; plantilak ezartzea; langileak aukeratzea; ikasketa-planak onestea; ikasleak onartzea eta haien iraupen-arabidea; eta tituluak ematea.

Ondoren paratuko dugu unibertsitateetan eskuarki aplikatzen den funtsezko arautegia.

- Unibertsitatea Eraberritzeari buruzko 11/1983 Lege Organikoa.

- Unibertsitateen Gizarte Kontseiluari buruzko 5/1985 Legea.

- Unibertsitateen Kontseiluaren Erregelamenduari buruzko 552/1985 Errege Dekretua.

- Unibertsitateen Kontseiluaren Idazkaritza Orokorrari buruzko 1212/1985 Errege Dekretua.

- Unibertsitate sailei buruzko 2360/1984 Errege Dekretua.

- Unibertsitate eskolei buruzko 2293/1973 Dekretua.

- Funtzio Publikoa eraberritzeari buruzko 30/1984 Legea.

- Unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioen jubilazioari buruzko 27/1994 Legea.

- Unibertsitate irakasleen araubideari buruzko 898/1985 Errege Dekretua.

- Unibertsitateko irakasleen ordainketei buruzko 1086/1989 Errege Dekretua.

- Ikerketa-jarduera ebaluatzeko prozedurari buruzko 1994ko abenduaren 2ko Agindua

- Unibertsitateko irakasleen kidegoetako lanpostuak betetzeari buruzko 1988/1984 Errege Dekretua.

- Estatuko Administrazioaren eskumeneko unibertsitateetako administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainketei buruzko 1545/1987 Errege Dekretua.

- Unibertsitatera iristeko probei buruzko 30/1974 Legea.

- Unibertsitatearen erakunde-funtzionamenduari buruzko 9/1975 Dekretu Legea

Legedi orokor horren ondoan, hurrengoak jarri behar ditugu NUPi gagozkiolarik:

- NUP sortzeari buruzko 8/1987 Foru Legea.

- Gizarte Kontseiluari buruzko abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legea.

- NUPeko estatutuak onartzeari buruzko martxoaren 13ko 68/1995 Foru Dekretua.

## V. NUPen HISTORIA LABURRA.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) aspaldiko aintzindariak erdi arotik datoz, Kontuen Ganbara fundatu zuen Nafarroako Carlos II.ak Uxueko santutegiaren ondoan unibertsitatea sortu nahi izan zuenetik.

NUPeko gertuko aintzindariak aipatzekotan, Parlamentuak, 81/11/30eko erabakian, hauxe eskatu zion Foru Diputazioari: “azterketa eta analisia egitea Nafarroako unibertsitate mailako irakasuntzen benetako beharrezaneiei eta egungo eta etorkizuneko aukerei buruz, orobat egungo egoera hobetzeko irtenbideen balorazio juridiko eta ekonomikoa”.

1982ko ekainean, beste erabaki bat onetsi zuen. Bertan, “Foru Diputazioa premiatzen da hiru hilabeteko epean Foru Parlamentuari aurkez diezaion bai Nafarroako unibertsitate-irakaskuntzen beharrezan eta handitze-aukerei buruzko azterketa eta analisia, bai... Biltzar honek Nafarroan unibertsitate publiko bat sortzeko egokitasuna eta abagunea aztertu ahal izan ditzan”.

1985ean, Hezkuntza Departamentuak azterlan-oroitidazkia prestatu zuen, “Unibertsitate Publikoa sortzeko proiektua” alegia.

1987ko otsailaren 24an, Unibertsitateen Kontseiluak aldeko txostena eman zuen Unibertsitatea sortzeari buruz.

Apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bitartez sortu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Aipatu legeko 1. artikulua dioenaren arabera, Unibertsitateari esleitu zaio “Nafarroako goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa, irakaskuntza, azterketa eta ikerketaren bidez”.

Unibertsitatea Eraberritzeari buruzko 11/1983 Lege Organikoak arautzen du haren jarduna, eta sortzeko Foru Legeak eta hori garatzeko ezarritzen dutena ezarriko da Lege Organikoak aurreikusten ez dituenetan. Hori guztia, Konstituzioaren 27. artikulua aitortzen duen unibertsitate-autonomiaren hatsapenak taxutua, autonomia akademiakoan, gobernukoan, eta baliabideen kudeaketa eta administrazioarako autonomian gauzatzen baita.

93/1988 Foru Dekretuz sortu eta 29/1989 Foru Dekretuz hein batean aldatu zen Batzorde kudeatzaile batek bereganatu zituen unibertsitate berria abiarazi eta garatzeko gobernu eta administrazio zereginak. Nafarroako Gobernuak izendatu zituen Batzordekideak, hezkuntza-administrazio arduradunen, teknikarien eta unibertsitateko irakasle artean.

30/1989 Foru Dekretuz onetsi ziren Nafarroako Unibertsitate Publikoaren estatutu-arau behin-behinekoak, behin betiko Estatutuak onetsi arte indarrean izan zirenak.

Estatutuok dira barne-jardunerako oinarritzko arauak.

1991ko maiatzean Gobernu Batzarrerako hauteskundeak egin ondoren, urte bereko irailean eratu zen. Batzorde kudeatzailea, beraz, desagertu egin zen. Nafarroako Gobernuak uztailaren 4ko 244/1991 Foru Dekretuaren bidez (91-7-26 NAO) izendatu zuen Unibertsitateko behin-behineko Errektorea, Unibertsitateko Gobernu Batzarra eratzten denetik aurrerako ondorioekin.

Gero, Nafarroako Gobernu berria eratu zenean, Errektorea aldatu egin zuten, 1991ko urrian.

1993an hautatu zuten klaustro eratzzailea. Klaustroak, 1994ko otsailaren 13an, bere eskumenetan nagusienetariko bat betetz, Errektorea hautatu zuen, Nafarroako Gobernuak izendatu ez zuen lehena.

Abenduaren 9ko 20/1994 Legeak onetsi zuen Gizarte Kontseilua. 1995eko maiatzean ekin zien bere jarduerari, Kontseilukideak izendatu ondoren.

1995ean onetsi ziren Unibertsitateko behin betiko estatutuak eta seigarren xedapen iragankorrarekin bat, unibertsitate-klaustroa hautatu zuten

1995eko ekainean, baita errektorea ere, urte bereko uztailan.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa sailka eratu dute eta 89-90 ikasturtean hasi zen jardunean. 1990eko irailaren 30ean sartu ziren Nafarroako Unibertsitate Publikoan Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Irakasleena, Zaragozako Unibertsitatekoak ordura arte, eta Nafarroako Ospitaleko Erizaintza Eskola eta Iruñeko Gizarte Lanekoa atxiki zitzaizkion, Zaragozako Unibertsitatearen menpekoak guztiak ere, eta baita Nekazaritza Ingeniari Teknikoen Unibertsitate Eskola, Madrilgo Politeknikoaren menpe ordura arte.

Laburbilduz, Batzorde Kudeatzailea 1988an izendatu ondoren jardunean hasi zenetik, 1995ean Errektorea hautatu arte, behin betiko estatutuak onetsi ondoren, non ezartze-prozesua bukatutzat eman daitekeen, Unibertsitateak lau talde ezberdin izan ditu zuzendaritzan.

Ordura arte egindako azterlanetatik abiatuta, NUP sortzeko egin zen oroit-idazkiak hurrengo ikasgaiak jarri zituen:

Fakultatea edo eskola	Titulua
Giza eta Gizarte Zientziak	O.H.O Irak. Diplomaturia
	Gizarte Lanean Diplomaturia
	Zientzia Politikoetan Diplomaturia
	Itzulpengintzan eta Interpretaritzan Lizentziatua
	Soziologian Lizentziatua
	Zientzia Politikoetan Lizentziatua
Ekonomi eta Enpresa Zientziak	Enpresa Ikasketetan Diplomaturia
	Gizarte graduatua
	Kudeaketa-informatikan Diplomaturia

Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskola	Enpresa Zientzietan Lizentziatua
	Erizaintzan Diplomaturia
	Fisioterapian Diplomaturia
	Logopedian Diplomaturia
Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	Dietetikan Diplomaturia
	Ingeniari Teknikoa. Elektrizitatea
	Ingeniari Teknikoa. Mekanika.
	Ingeniari Teknikoa. Industri Antolaketa
	Ingeniari Teknikoa. Teknika Energetikoak
	Ingeniari Teknikoa. Industri Elektronika
	Ingeniari Teknikoa. Ekipo Elektronikoak
	Ingeniari Teknikoa. Telefonía eta Datuen Transmisioa
	Ingeniari Teknikoa. Laser eta komunikazioak
	Industri Diseinuan Diplomaturia
Nekazaritza Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	Industri ingeniaria
	Telekomunikazio ingeniaria
	Ing. Tek. Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiapenak
	Ing. Tek. Nekazaritza Industriak
Lurralde Plangintzarako Ikasketen Zentroa	Ing. Tek. Nekazaritza Mekanizazioa eta Landa Eraikuntzak.
	Nekazaritza Ingeniaria
	Lurralde Plangintzarako Lizentziatua
	Lurralde Plangintzako Masterra

Nafarroako zentro publikoetan eta beste uibertsitate batzuen menpe zeuden ikasketak ere sartu ziren titulazio horiek lantzerakoan, jakina.

Unibertsitatea 89-90 ikasturtean hasi zen jardunean eta azken urte horretan sartu edo atxiki ziren ordura arte indarrean zeuden unibertsitate eskolak. Beraz, egin daitezkeen ikasketak dira:

Goi mailako titulazioa	Hasteko urtea	Erdi mailako titulazioa**	Urtea
Industri ingeniaria	1989	Industri Ing. Tek.	1990
Telekomunikazio ingeniaria	1990	Nekazaritza Ing. Tek.	1990
Nekazaritza Ingeniaria	1989	Enpresa Zientzien Dip.	1990
Ekonomian Liz.*	1989	Erizaintza Diplomaturia	1990
Enp. Adm. eta Zuz.Liz.*	1989	O.H.O.ko Irak. Dip.	1990
Soziologian Liz.	1991	Gizarte Grad. Dip.	1990
Zuzenbidean Liz.	1993	Gizarte Lanean Dip.	1990
		Lan Harr. Dip.	1992

\* Ikasketok Ekonomi eta Enpresa Zientzietako Lizentziatura gisa hasi ziren eta ikasketa-plana aldatu egin zen gero.

\*\* Erdi mailako karrerak ordurako Nafarroan zirenekin bat datoz eta NUPen sartuz joan dira.



## VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Egindako lanetik ateratzen diren ondorio eta gomendio nagusiak bildu ditugu atal honetan.

Ondoren egiten diren iruzkinak baloratzeko garaian uste dugu kontuan hartu behar dela unibertsitate gazte batez ari garela eta ez zela hutsetik abiatu, orduan Iruñean ziren unibertsitate-ikasketak bereganatu baitzituen. Ondorioz, unibertsitate-eraikuntza eta ekipamenduari, titulazioak abiarazteari eta irakasleak kontratatzeari begiratu zaie bereziki zortzi urte hauetan.

### a) Ondorioak.

#### UNIBERTSITATEKO ESPARRU OROKORRARI BURUZ.

1. Espainiako unibertsitateak baditu zehaztasunak, arau-esparrua, irakasleen kontratatzea, etab., Estatu guztirako amankomunak. Ondorioz, bertuteak eta akatsak unibertsitate-sistemarenak dira, oro har, hein handi batean.

Arautegi horrek ezarri duen kudeaketaren ezaugarri nagusiak dira sistema demokratikoa dela, ia-ia asanbleario bihurtzeraino, aginte-organoen ugariak sortutako "burokrazia" eta unibertsitate-kudeaketa beharizan aldakorrei egokitzeko malgutasun eskasa.

Gure ustez, unibertsitate-erakundea arautzen duen esparrua ez da egokiena unibertsitate-jarduren kudeaketa modernoa egiteko, eraginkortasun eta ekonomi hatsapenak gidarizat hartuko baldin badira, behintzat.

#### NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ESPARRUARI BURUZ.

2. NUPek ez du inongo dokumenturik epe luzerako eta erdi eperako bere estrategia planteatzeko. 1993an landu zuen hura Parlamentura bidali zuten. Batzorde arduradunak, ordea, ez zuen bere lana burutu. Gaur egun, NUP beste dokumentu bat ari da lantzen bere plan estrategikoa ezartzeko.

Aurrekoaren ondorioz, ez dira hainbat alderdi definitu, hala nola, irakaskuntzarekin eta ikerketarekin zerikusia duten helburu zehatz eta neurtzeko modukoak, sail bakoitzeko plantila haren berezitasunen arabera taxutzea edo etorkizunerako jarduketa-planak.

Horri gagozkiolarik esan behar da txosten hau egiteko garaian (96-97) lanean aritu izan direla plantilen osaketari eta ikasleen iraupen-planari buruz.

3. Ildo beretik, Foru Komunitateak nahi eta behar duen unibertsitate eredia finkatu gabe

dago, hurrengoak kontutan hartuz: azken boladan Estatuan ezarri den unibertsitate kopurua, gorantz doana, jaiotze-tasaren etengabeko beherakada, laster unibertsitate-erakundeari eragingo diona, Europako Batasuneko kide izatearen ondoriozko ikasle-mugikortasunaren eragina eta teknologia berriek irakaskuntzan izan dezaketen eragina, hori guztia sistema ekonomiko aldakorra ahaztu gabe.

Hori dela-eta esan behar da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egungo egituraketak aldatketak izan dituela hasieran aurreikusitako planak zekarren titulazio-mapari buruzkoan.

4. Sailak dira unibertsitate-jardueraren giltzarria, sail-unibertsitatea baita NUP.

Urtero izaten den sail-kopurua hogeita da; sailen egiturek eta izenek, hala ere, aldatketak izan dituzte.

5. Gaur eguneko munduan gertatzen diren aldaketa garrantzizkoek eta azkarrek, jaiotze-tasaren beherakadarekin batera, egungo parametroei eutsiz gero, ehuneko 44 gutxitu ditzakete balizko unibertsitarioak hogeita urteko epean: titulazio berriak jarri eta irakasleak kontratatzeke jarduketan kontuz ibili beharra dago, hortaz. Aldi berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ospea areagotzeko jardueraren baten aldeko apustua egin behar dela uste dugu, ikasleak erakarri ahal izateko.

#### AURREKONTUAK, KOSTUAK ETA FINANTZAKETA.

6. Hona 1989 eta 1995 urteen bitartean datu nagusiek izandako bilakaera:

	1989	1995
Gastuak, guztira (milioitan)	280	4.623
Irakasleen kidegoetako kideak (zenbat)	32	270
Kontrataturiko irakasleak (zenbat)	47	299
Goi mailako ikasleak (zenbat)	537	4.593
Erdi mailako ikasleak (zenbat)	1.042	4.943

Unibertsitateak bere aurrekontuen kontura egin dituen inbertsioak kontuan hartuz gero, Nafarroako Gobernuak eraikitako edificioak alde batera utzita, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontura egin baitziren, 5.379 milioi pezeta jotzen dute, 1995era arte.

Oro har, sailek uste dute NUP baliabideez ondo hornituta dagoela, kontuan hartuz gero existentzia laburra duela oraindik. Unibertsitate kudeaketari buruzko XV. jardunaldietan Espainiako unibertsitateak alderatzeko aurkeztu zuten azterlan baten arabera, ikasleko gastua ratorik handienetakoa du NUPek.

7. Egungo kontabilitate-sistemekin ezinezko da kostuak titulazioen arabera zorrotz aztertzea.

1995eko aurrekontu-kitapeneko datuekin, ikasleko gastua 520.000 eta 398.000 pezeta bitartean egongo litzateke, aurrekontu-gastu guztiak kontutan hartzen diren, edota ohiko gastuak ken ikerketa-proiektuei atxikiak bakarrik. Inoiz ez ditugu higiezinaren amortizazioak kontuan hartu.

8. Unibertsitate-finantzaketa matrikulen prezio-etara, ehuneko 20, gutxi gorabehera, eta Foru Administrazioak ematen duenera mugatzen da, ia-ia. Foru Administrazioak ematen duena guztizko kopurua da, irakaskuntzarako dena eta ikerketarako dena bereizi gabe, eta egungo kontabilitate-sistemek ez digute biderik ematen irakaskuntzaren eta ikerketaren kostuak zeintzuk diren jakiteko.

#### IRAKASKUNTZARI BURUZ.

9. Sailek, are ezagupen-arloek, duten garrantziak "enpresa" txiki bihurtzen ditu, ia-ia, batzuetan elkarren arteko loturarik gabe, norbere jardueretan interes handiagoarekin unibertsitatearen emaitza orokorrean baino.

Irakasleek ikerketa-lanetan gero eta interes handiagoa dutela ikusten da.

10. Irakaskuntza Antolatzeko Plana (IAP) kontuan hartuz gero ateratzen diren irakas-zamari buruzko datuak ez dira guztiz fidagarriak, plana egiten zen moduagatik eta ikasturtean zehar eguneratzen ez zelako.

Hala ere, hauxe ateratzen da, aztertuz gero:

– Irakaskuntza-denboraren ehuneko 70a lehen zikloari dedikatzen zaio; ehuneko 20a bigarrenari eta ehuneko 10a doktozetari.

– Alde handia dago sailek dituzten irakas-zamen artean: batzuetan sailaren irakas-ahalmena gainditu ere egiten da, bestezuetan irakas-ahalmenaren ehuneko 80a gainditzen ez den bitartean.

– Sail guztiek eskatu dute langile gehiago irakasleen kidegoetarako.

– Irakaskuntzaren kontrola egiteko, bertaraztea neurtzeko sistema formala erabiltzen da eta baita ikasleei egindako inkesta ere, non sailak ondorio orokorrak jasotzen dituen eta banakako datuak irakasle bakoitzari baino ez zaizkio jakinarazten. Zailago da kontrola egitea praktiketako klasetan, IAP egiterakoan ez direlako matrikulazioak, eta ondorioz, irakas-beharrizanak ezagutzen.

11. 1996ko bigarren seihilabetekora bitartean 104 irakaslek eskatu du bateratasun baimena. Hona banaketa:

Unibertsitateko titularrak	9
Unibertsitate Eskolako titularrak	2
Unibertsitateko titular interinoa	1
Elkartuak	92
Guztira	104

Egindako laginketatik atera dugu ehuneko 80a administrazio publikoarekin zerikusia duen jarduerara nagusia duten irakasleak direla. Ez dugu ezer berezirik aurkitu, azpimarratzeko modukorik.

#### IKERKETARI BURUZ.

12. Ez dago ikerketa-plan orokorrik, eta ikerketa-askatasuna irakasleen eskubide eta betebehartzat hartzen da.

Langileen ikerketa-jarduera sei urtero ebalua dezake Batzorde Nazional batek, ekoizkortasun-osagarriak (tarreak) emateko.

Hona NUPeko irakasleen tarreak, 1997ko datuen arabera:

	Tartedun irakasleak	Tarte kopurua
Unibertsitateko katedradunak	31	57
Unibertsitate eskolako katedradunak	5	6
Unibertsitateko titularrak	33	37
Tarreak, guztira		100

Unibertsitateak egin dituen ikerketa-proiektuak gogoan hartuz gero, inbertsioak jaso dituela esan behar: 157 milioi pezetako finantzaketa, unibertsitatearen jarduna hasi zenetik.

#### ERAGINKORTASUNA (emaitza akademikoak).

13. 95-96 ikasturtean 93.140 matrikulazio izan ziren eta 28.422 ikasgai geratu ziren gainditu gabe, ehuneko 31, alegia. Azterketa egitera aurkeztu ez ziren ikasleek matrikulazio guztien ehuneko 23a egiten dute.

Ikasketen iraupenari buruz, guztiz kontrolatu diren 2.221 tituluetarik, erabateko ondorioak ateratzeko gutxi badira ere, ehuneko 59 atera dira ikasketa-planetan agertzen diren urteetan.

Hala ere, aipatu behar da matrikula egin duten ikasleen arabera balizko titulazioak, ateratakoak baino hiru edo lau aldiz gehiago izan zitezkeela.



**b) Gomendioak:**

Ondorioz, beraz, horra gomendioak:

1. Nafarroako gizarteak, haren ordezkariak definitu behar dute gure komunitaterako nahi duten unibertsitate-eredua eta, ondorioz, haren jardueraren alde nagusiak planifikatu epe luze eta ertainerako: titulazio-mapa eta titulazio berrietarako irizpideak; unibertsitatearen finantzaketa; ikerketa; irakaskuntza eta ikerketa ebaluatzeko irizpideak; unibertsitatearen antolamendua, plantilak, eta abar.

Plangintza hori urtero zehaztu beharko litzateke aurrekontua eginez, eta aurrekontuak bere baitan hartu beharko lituzke unibertsitate-jardunaren helburu eta adierazleak, helburu orokorrak epe ertainean erdiesteko bide emango dutenak.

Estatuan, arrazoiak guztiz bestelakoak badira ere, neurriak ezarri dira aipatu helburuak erdiesteko. Horien artean aipa ditzakegu, kontrako muturretan daudelako, Kanarietako unibertsitateek bere Administrazioarekin izenpetu kontratu-programak eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoaren Plan Estrategikoa.

2. Unibertsitate-eredua oso argi baldin badago, orobat unibertsitatearen jardunaren eraginkortasuna eta ekonomia gizarteari bermatzeko antolamendu beharrezkoa, litekeena da egungo arau-esparruaren garrantzizko aldaketa behar izatea. Izan ere, unibertsitate-komunitateko ia kide guztiek kritikatzeko dute eta behin baino gehiagotan aldatzeko zorian izan bada ere, azkenean ez da aldaketarik gertatu, hainbat arrazoiengatik.

3. Informazio-, kontabilitate-, aurrekontu- eta informatika-sistemen garapena ahalik eta gehien bultzatzea, halako moldez non informazio guztia eskura ahal izango dugun, irakaskuntza eta ikerketaren kostuei buruz, benetako irakas-zamari buruz, ondorio akademikoari buruz, ekipamenduen erabilerari buruz, eta abar..., beharrezkoak baitira unibertsitate-jardueraren eremu bakoitzean kudeketa egokia erdiesteko eta erabakiak azkar eta eraginkortasunez hartu ahal izateko.

4. Langile guztiei helaraztea Unibertsitatea entitate bakarra dela bere osotasunean, eta haren interes orokorrak kideen interes partikularren gainetik egon behar direla.

5. Irakaskuntza eta ikerketa ebaluatzeko plan sistematikoa ezartzea. Azken horri dagokionean, egoki deritzogu NUPeko ikerketaren plan orokorra ezartzeari, Foru Komunitatearen planaren baitan sartzeko, hala bada.

*Halako plan bat izateak ez du esan nahi NUPek kanpo geratu behar duenik Unibertsitateen Kontseiluak edo Estatuko edo Europako beste entitatearen batzuek egin ditzaketen borondatezko ebaluazioetarik.*

6. Beste finantza-baliabide batzuk lortzeko ekintzak sustatu, ikerketa-kontratuen bitartez, edo beste estatu batzuetan erabiltzen diren moduen bitartez, hots, fundazioen edo ikasle ohien dohaintzak eta abar.

7. Jaotze-tasaren gutxitzeak eta gizartearen beharrezko aldakorrek unibertsitatearen geroan izan dezaketen eragina aztertu eta egoera horri egokitzeko politika ezartzea. Politika horren barruan egin daitezkeen jarduketetako bat kontsideratu dugu iraupen jakineko titulazio berekiak ezartzea.

## VII. UNIBERTSITATE KUDEAKETAREN AZTERKETA.

Idazati honetan aztertuko ditugu Unibertsitatearen funtzionamenduan eragina duten bost alderdi: orokortasunak; unibertsitatearen zifrak, eraginkortasunarekin zerikusia dutenak; kostu eta bateraezintasun alderdiak eta Unibertsitatearen etorkizunarekin zerikusia dutenak.

### VII.1. OROKORTASUNAK.

Ondoren iruzkinduko ditugu bi alderdi oinarriko: Unibertsitateak zer esparru juridikotan jarduten duen eta Unibertsitatearen xedeak.

#### Unibertsitatearen antolaketa orokorra.

##### 1. Esparru juridikoaren azterketa laburra.

Unibertsitatearen jardunaren oinarrian dagoen esparru juridikoa osatzen duten arau nagusiak IV. idazatian jaso ditugu. Esparru horren oinarriko gunea hurrengoek mamitzen dutela: Unibertsitatea eraberritzeari buruzko 1983ko Lege Organikoa (UEL); NUP sortzeari buruzko 1987ko Foru Legea; Gizarte Kontseiluari buruzko 1994 Foru Legea. eta NUPeko estatutuak, 1995ekoak.

Honela gauzatzen du UELk unibertsitate-autonomia antolamenduaren arloan: Legeak gutxieneko eta beharrezkotzat jotzen dituen organoak aurreikusi ditu, estatutuek edozein kasutan ezarri beharrekoak, eta unibertsitateari ahalmena aitortzen die aipatu organoak arautzeko, legeak ezarritako gutxieneko arauak eta hatsapenak errespetatuz.

UELk dio estatutuek hurrengo organoak ezarri behar dituztela, gutxienez:

“a) Talde-organoak: Gizarte Kontseilua, Unibertsitateko Klaustroa, Gobernu Batzordea, Fakultateetako Batzordeak, Goi Mailako Eskola Teknikoen Batzordeak, Eskola Unibertsitateen Batzordeak eta Saitetako eta Unibertsitate Institutuetako Kontseiluak.

b) Lagun bakarrekoak: Errektorea, Errektoreordeak, Idazkari Nagusia, Kudeatzailea, Fakultateetako Dekanoak, eta Goi Mailako Eskola Teknikoetako, Unibertsitate Eskoletako, Unibertsitate Saitetako eta Unibertsitate Institutuetako Zuzendariak” (13.1. artikulua).

Aipatu organoek gain, estatutuek beste batzuk ezarri dituzte: NUPeko eta sail bakoitzeko dokto-retza batzordea, ikerketa batzordea, errekamazioen batzordea, kontratazio batzordea, irakaslan ebaluatzeko batzordea eta hizkuntza normalizaziorako batzordea.

Doktrinak azpimarratzen duenez, maila berean, talde-organoak nagusitzen zaizkie lagun bakarrekoei, bi arrazoiengatik: a) erabaki nagusiak talde-organoei erreserbatzen zaizkie, lagun bakarrekoei kanpo ordezkarietakoak, exekutiboak eta bultzatzekoak dagozkien bitartean; eta b) talde-organoek eskumena dute lagun bakarreko organoetako titularrak izendatu eta kargutik kentzeko, are gehiago, konfiantza ere kentzeko aukera dute, zentsura-mozioen bidez.

Aldi berean, zehaztu beharra dago eremu orokorra eta eremu mugatua bereizi behar direla, alegia, eremu orokorreko talde-organoak (Unibertsitateko Klaustroa) eta eremu mugatukoak (Zentroko Batzordea, Saileko Kontseilua); eta eremu orokorreko organo lagun bakarrekoak (Errektorea) eta eremu mugatukoak (Dekanoak, Saileko Zuzendariak).

Gobernu eta administrazio organoak hautatu, izendatu eta kargutik kentzeaz denaz bezainbatean, estatutuei dagokie beharrezko zehaztasunak finkatzea, UELk aurreikusitako hatsapen eta bete-behar gutxienekoak begiratzuz. UELk, bere 4. artikuluan dio “Unibertsitateak halako moldez antolatuko dira non unibertsitate-komunitatea osatzen duten sektore ezberdinen ordezkarietza segurtatuko den beraien gobernuan eta ikastetxeenetan, orobat gizarte-interesen ordezkarien partehartzea”.

Irakasleei buruzkoan, UELk kudeaketaren alde nagusiak arautzen ditu: kidegoak, betebeharrak eta kontratazio-sistemak. Orobat dio “gobernuak ezarriko du irakasleen ordainketa-araubidea, unibertsitate guztietan uniforme izanen dena”.

Kontabilitate eta aurrekontu sistemari baga-gozkio. UELk dio unibertsitateek men egin behar-dietela alor publikorako eskuarki ezarri diren araei.

UELko aitzin solasak berak dienez, hurrengo asmoak zituen arau horrek: Espainia zientzia modernoaren munduan sartzea, lanbide-prestakuntza edo kultura-interes orokorra gehitzen duten ikasleen kopurua haztea, eta ikasketak Europakoekin parekatzea, Europako Batasunean sartzearen ondorioz gertatu den mugikortasun handiagoaren aurrean. Aipatu arautegiaren aplikazio praktikoaren ondorioak aztertzen baditugu, hurrengoak lirateke Espainiako Unibertsitatearen kudeaketaren zehaztasunak:

- Sistema demokratikoa da eta zerikusia duten estamentuei eman zaien partehartzea hainbestearinokoa da non asanblada-sistema bihurtzen den ia-ia.

- Talde zein lagun bakarreko organoen kopuru handiaren ondorioz sortzen den “burokrazia”.

- Unibertsitate bakoitzak kudeaketa-ahalmena izan arren, Unibertsitatearen alderdi nagusiak arautzen dituen arautegi orokorra izateak mugitzeko esparru txikia uzten dio unibertsitate-kudeaketa egungo gizartearen beharrian aldakorrei egokitzeko.

Esparru juridikoa dela-eta azpimarratu diren aldeekin batera, aipatu beharra dago Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jardunaren lehen hamarkada honetan, logiko denez, eguneroko arazoak konpontzeari eman zaiola lehentasuna, epe ertain eta luzekoan kaltetan. Beraz, ahalegin nagusiak irakasleak kontratatzen, ikasketak eta instalazioak martxan jartzen, sailak sortzen eta abarretan egin dira, eta prozesu horiek, NUP ezartzeko prozesuan, unibertsitate-organo ezberdinetako kideak izendatzeko etengabeko botazioekin batera burutu dira.

1993an egin zuten “Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko hirurteko estrategiarako dokumentua” izenekoa eta Nafarroako Parlamentura bidali zuten, non parlamentu-batzordea eratu zuten aipatu dokumentua aztertu eta eztabaidatzeko. NUPekin zerikusirik ez duten arazoak medio, Batzordeak ez zuen bukatu bere lana eta dokumentua erabilerarik gabe geratu zen. Gaur egunera arte ez da bestelako plan estrategiko edo urte anitzetako plangintzarik egin.

Gure ustez, beharrezko da epe ertain eta luzerako plangintza egitea, NUPen plan estrategikotik abiatuta, irakaskuntzan eta ikerketan erdietsi behar diren helburu nagusiak jartzeko. Ildo horre-

tatik, hurrengoak erabili beharko lituzke plan horrek, besteak beste: NUPek Foru Komunitatean izan behar duen tokia, gizarteari eskaini nahi dizkion ikasketak, irakasleen eta zerbitzuetako langileen plantilak, gizarte-beharrizan aldakorrei azkar egokitzeko irizpideak; kalitate helburuak irakaskuntzan eta ikerketan, egungo jaiotze-tasa apalaren ondoriozko balizko ikasle-murrizketaren aurreko estrategia, eta abar.

## **2. Unibertsitatearen xedeak eta finantzaketa.**

Unibertsitatearen xede edo helburuak ezagutu behar dira unibertsitatearen jarduera baloratu ahal izateko. Horri gagozkiolarik, antzeko zamarrak dira UELen eta NUPeko estatutuetan jasotakoak: profesional kualifikatuak prestatzea, zientzia, teknika eta giza jakintzaren garapena bultzatzea eta gizartearen garapenari lagunduko dioten jarduerak garatzea, Nafarroako Foru Komunitateari arreta berezia jarritz.

Helburuon zabala eta orokorra ez da inongo dokumentutan zehazten.

Azken urteotan gertatu den unibertsitate-hazkundea kontuan izan behar da: 21 unibertsitate sortu dira 20 urtetan, unibertsitateen kopurua 50era hurbiltzen ari da, albo batera utzita UNED eta Menéndez Pelayo nazioartekoa. Nafarroan UNED eta beste unibertsitate pribatu bat ere badira. Auzoko komunitateetan ere (Aragoi, Errioxa eta Euskal Autonomia Erkidegoa) badira unibertsitateak. Horren ondorioz, beharrezko deritzogu helburu argiak izateari, erabakiak hartzeko oinarria baitira.

Irakaskuntzaren arloan aukera anitz dira: eza-gupenak, duten erabilera praktikoari jaramonik egin gabe, belaunaldiz belaunaldi transmititzeko xede bakarra duen unibertsitate hasi eta lan-munduaren lanpostu-eskaria besterik onartzen ez duen ereduraino.

Ikerketaren arloari bagagozkio, ikertzaile bakoitzaren askatasun osoa, alde batetik, eta bestetik, unibertsitate-ikerketak egiteko lerro guztiak marraztuko dituen unibertsitateko ikerketa-plana izatea ditugu esparru horretako muturrak.

Bi esparrutan hartzen diren erabakiak alde batera utzita, egoki irizten diogu neurri horretako Unibertsitateak azterketa eta ikerketa alorren bat izateari, zeina, bere nolakotasunengatik edo erdietsitako mailagatik, Unibertsitatearen "bandera-untzi" eta unibertsitate-komunitatearendako erreferentzia izango den.

NUP aukera-eremu zabal horretako toki batean edo bestean kokatzeak eragina izan behar du

finantzaketan eta gizarteak NUPen esku uzten dituen baliabideetan, eta, are, zerbitzuak erabiltzen dituztenek ordaindu behar dituzten prezioetan ere izan dezake eragina.

Unibertsitatearen eredu orokorra definitu ondoren, urtero, aurrekontuekin batera onetsi beharko lirake lortu beharreko helburuak, berehalakoak eta koantifikatzen errazak, bistan da: azterketak gainditu dituztenen kopurua, irakurritako tesiak, egindako argitalpen zientifikoak, ikerketarekin aterako dirusarrerak, eta abar... eta irakaskuntzaren eta ikerketaren kalitatearen inguruan ezartzen direnak ere. Horri buruz azpimarratu behar da unibertsitate-ikasleen mugikortasunak, Europako Batasuneko hainbat programak bultzatua (Socrates-Erasmus), berekin ekarriko duela Europako ikasketek maila homogeenari eustea, edo maila apalogoko unibertsitateak kalteturik gertatzea trukateta horietan.

Guk uste dugu goiko idazatietan erabilitako gaiak eragina izan behar dutela Unibertsitatearen finantzaketan.

Hiru bide nagusi ditu unibertsitatearen finantzaketak, gaur egun: Foru Komunitateak esleitu dion osoko dirulaguntza; Komunitateak finkatutako tasa akademikoak, Unibertsitateen Kontseiluak ezarritako muga barruan; eta lan zientifiko, tekniko edo artistikoak egiteko izenpetu diren kontratuek dakartzaten dirusarrerak.

1995ean, tasa eta prezio publikoetan likidaturikoak 888 milioi jo zuen, jasotako dirulaguntza arruntek 3.077 milioi eta kapital-dirulaguntzek 600 milioi; proiektuen ondorioz, 35 milioi pezeta jotzen duten ondasunak sartuko dira NUPen inbentarioan. Urtean likidaturiko dirusarrerak guztiek 4.756 milioi jo zuten, edo 5.303 milioi, proiektu bereziei atxikita daudenak kontuan hartzen diren ala ez.

Nafarroako kasuan, beste autonomia erkidegoetan ez bezala, unibertsitate bakarra dago Foru Administrazioaren menpe eta ez dago arazorik goi mailako irakaskuntzari dagokion dirua banatzeko. Hortaz, ez dira landu dirulaguntza esleitzeko ereduak edo irizpideak.

Esleipena orokorrean egiten da, batean, dituen xede ezberdinak, irakaskuntza eta ikerketa, berezi gabe. Gauza bera gertatzen da tasen kopuruarik, orokorrean ezarri baitira. Horregatik uste dugu komeni dela jakitea irakaskuntzaren kostua eta ikerketaren kostua zein den, eta zeregin bakoitzerako finantzaketarik egokiena aztertu behar dela.

Unibertsitate-finantzaketa hori, jakina, gizarteak goi mailako irakaskuntzarako hobetsi duen

finantzaketa-eredu orokorraren baitan sartuko litzateke.

Beraz, ia-ia derrigorrezko irakaskuntzat hartzen bada, herriaren kultura-maila jasotzeko helburua duena, dohakotasunerantz joko da. Aldiz, hezkuntza elitistatzen hartzen baldin bada, erabil-tzaileak finantzatu beharko du eta, hala bada, dagozkion laguntza-programak ezarriko dira bal-

dintzak bete baina baliabide ekonomikorik ez duten haientzat.

## VII.2. UNIBERTSITATEAREN ZIFRAK.

### VII.2.1. Ekonomikoak:

Ondoren jarriko ditugu aurrekontu-likidazioekin zerikusia duten datuak, 1989tik aitzina, urte horretan ekin baitzion NUPEk irakaskuntzari.

## Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontu-bilakaera

## Gastuen aurrekontua

Kapituluak	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	Batez besteko gehikuntza %
Langileak	127.380.891	485.430.869	1.139.084.949	1.632.308.239	2.130.411.150	2.389.201.017	2.610.561.039	65
Ohiko gastuak	92.907.609	270.179.296	520.423.331	709.438.016	834.976.361	960.560.607	1.028.096.836	49
Finantza-gastuak	46.562		89.276	116.612	122.712	134.831	124.748	
Ohiko transferentziak	1.000.000	2.100.000	16.566.576	34.950.833	66.466.361	100.797.459	128.922.945	125
Inbertsioak	58.773.613	149.850.488	1.133.727.391	785.834.644	904.694.883	696.420.204	833.721.973	55
Finantza-aktiboak			50.000		4.806.000	24.652.665	21.508.651	
GUZTIRA	280.108.675	907.560.653	2.809.941.523	3.162.648.344	3.941.477.467	4.171.766.783	4.622.936.192	60

## Dirusarrerren aurrekontua

Kapituluak	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	Batez besteko gehikuntza %
Tasak eta bestelakoak	73.235.023	212.313.431	363.415.539	574.109.579	714.015.446	872.886.724	932.821.357	53
Ohiko transferentziak	356.152.000	673.339.059	1.688.573.107	2.724.942.490	2.896.339.900	2.902.878.239	3.251.246.523	45
Ondare dirusarrerak	7.665.252	16.843.847	33.498.608	69.593.471	86.750.125	59.951.887	78.899.973	
Kapital transferentziak	9.200.126	93.245.926	540.891.000	10.015.169	162.200.000	378.645.550	749.037.186	108
Finantza-aktiboak	5.693.611	171.837.339	260.018.949	76.456.000	292.868.499	224.853.527	291.815.505	
GUZTIRA	451.946.012	1.167.579.602	2.886.397.203	3.455.116.709	4.152.173.970	4.439.215.927	5.303.820.544	51
(DEFIZITA)/ /SUPERABITA	171.837.337	260.018.949	76.455.680	292.468.365	210.696.503	267.449.144	680.884.352	
GER. ESP. PROIEKTUAK			71.771.425	89.339.025	115.534.150	157.253.045	279.954.261	
GER. ESP. LIBURUTEGIA					41.616.948	18.832.428		
BENETAKOA			4.684.255	203.129.340	53.545.405	91.363.671	400.930.091	

Hau da, 1990 urtea oinarri hartuta gertatu den bilakaera hurrengo dela:

## Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontu-bilakaera

## Gastuen aurrekontua

Kapituluak	1990	1991	1992	1993	1994	1995	Batez besteko gehikuntza %
Langileak	100	235	336	439	492	538	65
Ohiko gastuak	100	193	263	309	356	381	49
Finantza-gastuak							
Ohiko transferentziak	100	789	1.664	3.165	4.800	6.139	125
Inbertsioak	100	757	524	604	465	556	55
Finantza-aktiboak							
GUZTIRA	100	310	348	434	460	509	60

## Dirusarrerren aurrekontua

Kapitulua	1990	1991	1992	1993	1994	1995	Batez besteko %
Tasak eta bestelakoak	100	171	270	336	411	439	53
Ohiko transferentziak	100	251	405	430	431	483	45
Ondare dirusarrerak	100	199	413	515	356	468	47
Kapital transferentziak	100	580	11	174	406	803	108
Finantza-aktiboak	100	151	44	170	131	170	93
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>247</b>	<b>296</b>	<b>356</b>	<b>380</b>	<b>454</b>	<b>51</b>

Hona 1995eko ekitaldiari dagokion gastu eta dirusarrerren banaketa portzentuala:

1995eko gastuak, guztizkoaren ehunekotan	
Langileak	56
Ohiko ondasun eta zerbitzuak	22
Finantza-gastuak	–
Ohiko transferentziak	3
Inbertsioak	18
Finantza-aktiboak	0
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

  

1995eko dirusarrerak, guztizkoaren ehunekotan	
Tasak	18
Ohiko transferentziak	61
Ondare dirusarrerak	1
Kapital transferentziak	14
Finantza-aktiboak	6
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Datu horietatik ateratzen da langile-gastuek eta ondasun-erosketek gastu guztiek ehuneko 78 egiten dutela; dirusarrerei bagagozkie, ordea, tasek horien ehuneko 18 egiten dute eta ohiko transferentziek eta kapitalekoek ehuneko 75eraino heltzen dira.

Espainiako unibertsitateen aurrekontu-betetzeari dagokionean, ponentzia bat aurkeztu zuten Unibertsitateko Kudeatzailetzari buruzko XV. jardunaldietan, unibertsitateek 1994an izandako likidazioak alderatuz.

Azterlan horren arabera, NUP lehenengoen artean dago ikasleko gastu eta dirusarrerei begiratuz gero.

Izan ere, unibertsitateen ohiko dirusarrerren batez bestekoa 384.268 pezeta den bitartean, Nafarroan 460.913 pezeta da, eta ohiko gastuei begiratuz gero, 355.860 pezeta eta 414.648 pezeta dira, hurrenez hurren.

#### VII.2.2. Ikasle-irakasleak:

Hona irakasleen bilakaera (dituzten maila ezberdinen arabera) jarduerak hasi zirenetik:



## NUPeko irakasleen bilakaera, 1989-1995

Irakasleak	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	Taldea- ren g.%	Guztia- ren g.%
U.K.	12	16	21	23	28	31	39	14	7
U.T.	15	25	46	57	73	81	127	47	22
U.E.K	3	14	14	13	13	17	18	7	3
E.U.T	2	55	70	81	87	80	85	32	15
Emeritoak				1	1	1	1	-	-
Irakasleen kidegoak, guztira	32	110	151	175	202	210	270	100	
Bitartekoak		10	31	36	33	35	4		
Elkartuak	44	103	81	87	104	142	179	60	32
Ospitaleko elkartuak				20	12	12	11	4	1
Laguntzaileak		23	33	71	93	87	89	3	16
Bisitariak							3	1	1
Zerbitzu eginkizunetan	3	4	16	16	23	22	13	4	2
Kontratatuak, guztira	47	140	161	230	265	298	299	100	100
IRAKASLEAK, GUZTIRA	79	250	312	405	467	508	569	-	-

U.K. = Unibertsitateko katedraduna

U.T. = Unibertsitateko titularra

U.E.K= Unibertsitate Eskolako katedraduna

E.U.T.= Unibertsitate Eskolako titularra

Agerian dago irakasle kontratatu gehiago dagoela irakasleen kidegoetan baino. Beraz, EULko 33. artikulua ez da bete, Unibertsitate bakoitzeko elkartuek katedradunen eta titularren ehuneko 20a gaindituko ez dutela xedatu baitu, salbuespen batekin: unibertsitate politeknikoak, non ehuneko 30 baino gehiago izango ez diren.

EULko 33. artikulua diotenari egokitzuz gero, langileen gastuak nabarmen igoko dira, talde bien arteko soldata-aldeak ikusita, hori gauzak berez dakarrena da.

Hurrengo laukian ikus daiteke ikaslegoaren bilakaera, urteen eta ikasketen arabera:

## NUPeko ikasleen bilakaera. 1989-1995

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995
Industri I.	123	238	346	561	716	795	635
Telekom. I.		124	244	368	478	587	552
Nekazaritza I.	111	203	289	495	577	684	963
Ek. eta Empr. L.	303	475	296	13			
Ekonomian L.			197	379	448	547	634
E.A.Z.L.			414	730	826	848	877
Soziologia L.			128	223	340	474	568
Zuzenbidea L.					172	237	364
Goi mailakoak, guztira	537	1.040	1.914	2.769	3.557	4.172	4.593
Industri I.T.	808	854	875	937	992	1028	975
Nekazaritza I.T.		453	510	388	577	652	722
Enpresa Z. D.		1.082	704	328			
Enpresa Ik. D.		356	638	982	1.126	1172	1209
Erizaintza D.		105	204	318	335	360	353
OHoko Irak. D.		81	144	235	353	253	440
Giz. Grad. D.	234	419	672	473	560		33
Giz. Lan D.		125	242	354	368	359	381
Lan Harr. D.				278	485	698	830
Erdi mailakoak, guztira	1.042	3.475	3.989	4.293	4.796	4.522	4.943
OROKORREAN, GUZTIRA	1.579	4.515	5.903	7.062	8.353	8.694	9.536

Hau da, ikasleen erdiak, ia-ia, jasotzen dituela erdi mailako ikasketak eta beste erdiak lizentziaturak. NUP sortu baino lehen Iruñean zeudenak dira erdi mailako ikasketak, eta lizentziaturak, harrez gero jarriak.

Ondoren alderatuko ditugu ikasle eta irakasleen datuak:

## NUPeko ikasle/irakasleen bilakaera. 1989/95

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995
Ikasleak	1.579	4.515	5.903	7.062	8.353	8.694	9.536
Irakasleak	79	250	312	405	467	508	569
Ikasle/irak.	19,99	18,06	18,92	17,44	17,89	17,11	16,76

Urteotan zehar, irakasleko ikasleak ratioak behera egin duela ikus daiteke.

Ikasleen sexuen arabera banaketari baga-gozkio, gizonezkoak, ehuneko 51, (4.982), eta emakumezkoak, ehuneko 49 (4.644) antzeratsu dabilta; banaketa asko aldatzen da ikasketen arabera, ordea. Gizonezkoak askoz gehiago dira ingeniarietza guztietan eta Industri Ingeniaritza Teknikoan ehuneko 84ra iristen dira; Ekonomian

ehuneko 50 dira; eta gainerako ikasketetan gutxiago dira, gutxienean erizaintzan, ikasleen ehuneko 15 baino ez.

Jatorriari buruz esan behar da 7.886, hau da, ehuneko 82, Foru Komunitatekoak direla. Nafarroatik kanpoko 1.670 ikasleotarik ehuneko 87 inguruko probintzietatik datoz (Araba, Gipuzkoa, Huesca, Errioxa, Soria, Bizkaia eta Zaragoza).

**VII.2.3. Inbertsioak eta inbentarioa.**

Nafarroako Gobernuak, bere aurrekontuen kontura, kudeatu eta finantzatu zituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eraikinak jasotzea eta oraindik ez da Unibertsitatearen aldeko lagapena edo inskripzioa egin. Hortaz, ez dira Unibertsitatearen kontabilitate-egoeretan ageri.

Nafarroako Gobernuak finantzatu dituen inbertsioak albo batera utzita, Unibertsitateak beste batzuk egin ditu bere aurrekontuen bitartez, egin dituen ikerketa-proiektu ezberdinen kargura, eta Nafarroako Gobernuak bere aurrekontuen kontura 1992ra arte egindako inbertsio batzuk ere bereganatu ditu Unibertsitateak.

Ondoren paratuko ditugu inbertsio horiek, nondik datozen eta zertarako erabili diren zehaztuz: saila edo erabilera orokorra:

	1988-1995
Inbertsioak, VI. kap.	4.561.377.273
Inbertsioak, II. kap. (bibliografia)	57.965.003*
NUPeko aurrekontuak, guztira	4.619.344.651
Nafarroako Gobernuaren inbertsioak	503.117.055
Inbertsioak, ikerketa-proiektuak	156.712.699
<b>Guztira</b>	<b>5.279.174.405</b>

\* II. kapituluaren kontura erosi zuten bibliografia lehenengo urteetan.

Hona inbertsiook nola banatzen diren:

Saila	Orokorra, guztira
Automatika	604.327.930
Osasun Zientziak	61.147.466
Zuzenbidea	91.919.988
Diseinua eta Artea	8.609.015
Ekonomia	57.955.771
Adierazpen grafikoa	42.680.867
Filosofia	12.088.196
Fisika	170.678.173
Geografia eta Historia	46.876.965
Enpresen Kudeaketa	63.046.481
Nekazaritza eta Oihan Ingeniaritza	87.369.794
Landa ingeniaritza eta proiektuak	161.867.288
Ingeniaritza mekanikoa	310.848.938
Linguistika eta Literatura	39.715.970
Matematikak eta informatika	170.037.480
Métodos estatistikoak	23.975.617
Estatistika eta ikerketa operatiboa	26.848.108
Nekazaritza ekoizpena	301.454.971
Inguru naturaleko zientziak	80.898.974

Kimika	257.919.880
Soziologia eta psikologia	23.296.677
Soziologia eta gizarte lana	34.198.946
Psikologia eta pedagogia	32.289.120
Elikagaien teknologia	156.245.208
Elikagaien ingeniaritza	44.966.250
Antropologia	3.566.265
Filosofia unitatea	2.882.222
Nutrizioa eta bromatologia	14.306.383
(1) Nekazaritza Bioteknologiako Zent.	385.760.032
<b>SAILAK, GUZTIRA</b>	<b>3.317.778.975</b>
<b>OROKORRAK</b>	<b>1.961.395.430</b>
<b>INBERTSIOA, GUZTIRA</b>	<b>5.279.174.405</b>

(1) Horren eraikuntzaren zati bat FEDEReko fondoetako 300 milioirekin finantzatu zen.

Aurreko datuetarik ateratzen denez, lau sail dira, bioteknologia zentroaz gain, 250 milioitik gorako inbertsioarekin, eta guztira, departamentuetako inbertsioen ehuneko 56 egiten dutenak

Inbertsio orkortzat hartu diren 1.961 milioi horietan, 400 milioi baino gehiago sartu dira aldizkari eta erreferentzia-liburuetan gastatu direnak, sailei inputatu gabe.

1996an zehar egin dute 95.12.31n zeuden ondasunen inbentarioa eta ez dute bibliografia sartu. Bi balioespen ezberdin egin dira azterlan horretan: berriarekin ordeztzeko kostua (B.O.K.), hau da ondasun baten ordeztzeko beste berri bat jartzeko kostua; eta erabiltzeko benetako balioa (E.B.B.), bietan BEZ sartu gabe.

Hona atera diren balioak:

	B.O.K.	E.B.B.
Aplikazio informatikoak	22.097.597	22.097.597
Eraikuntzak	70.000	70.000
Makineria, instalazioak eta tresneria	1.783.437.824	1.288.133.589
Altzariak	1.338.165.967	982.791.108
Informazioa lantzeko ekipoak	688.312.180	468.894.951
Garraio-gailuak	8.579.883	6.591.771
<b>Guztira</b>	<b>3.840.663.451</b>	<b>2.768.579.016</b>

Bistan da gai heterogeneoekin ari garela: kontabilitatearen arabera egindako inbertsioak, lehenengo kasuan, eta bigarrean, 1995ean egin zuten ondasunen inbentarioa, egin diren inbertsio guztiak hartzen ez dituen eta bestelako balorazio-irizpideekin egina. Beraz, logikoa da bat ez etortzea.

**VII.2.4. Sailak: bilakaera eta irakaskuntza-zamaren azterketa.****a) Bilakaera**

Nafarroako Unibertsitate Publikoak dituen ezaugarrien artean, sailkako egitura da behinena-takoa.

NUP ezartzeko prozesuan hainbat aldaketa gertatu dira sailen osaketan, hurrengo laukitik ateratzen denez. Aurrekontu-ekitaldi ezberdinetan funtzionamendu-gastuak izan dituzten sailen araberaren egin dugu lauki hori.

Gurutzeek esan nahi dute ekitaldi horretan departamentuak gastuak egin zituela eta, beraz, urte hartan bazela.

**Sailen bilakaera**

Saila	Gastuak 1991	Gastuak 1992	Gastuak 1993	Gastuak 1994	Gastuak 1995	Gastuak, 1996 (Sailak birrant. baino lehen)	Gastuak, 1996 (Sailak birrant. ondoren)
Antropologia	x						
Automatika, elektronika eta Sistemen ingeniari-tza	x	x	x	x	x	x	
Automatika eta konputazioa							x
Ingeniari-tza elektriko eta elektronikoa							x
Osasun Zientziak	x	x	x	x	x	x	x
Natura Ingurunearen Zientziak			x	x	x	x	x
Zuzenbidea	x	x	x	x	x	x	
Zuzenbide publikoa							x
Zuzenbide pribatua							x
Diseinua eta artea	x	x	x				
Ekonomia	x	x	x	x	x	x	x
Adierazpen grafikoa eta proiektuak	x	x					
Zientzien Filosofia eta metodologia	x	x					
Fisika	x	x	x	x	x	x	x
Geografia eta Historia	x	x	x	x	x	x	x
Enpresen Kudeaketa	x	x	x	x	x	x	x
Nekazaritza eta baso ingeniari-tza	x	x					
Landa ingeniari-tza eta proiektuak			x				
Proiektuak eta landa ingeniari-tza				x	x	x	x
Ingeniari-tza elektriko	x						
Mekanika ingeniari-tza eta med. kont.	x	x					
Mekanika ingeniari-tza eta materialeena			x	x	x	x	
Material, energetika eta mekanika ingeniari-tza							x
Linguistika eta Literatura	x	x	x	x	x	x	
Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika							x
Matematika eta Informatika	x	x	x	x	x	x	x
Metodo estatistikoak	x	x					
Estatistika eta Ikerketa operatiboa			x	x	x	x	x
Nekazaritza ekoizpena	x	x	x	x	x	x	x
Kimika	x	x	x	x	x	x	
Kimika Aplikatua							x
Soziologia eta Psikologia	x	x					
Soziologia eta Gizarte Lana			x	x	x	x	
Soziologia							x
Gizarte Lana							x
Psikologia eta Pedagogia			x	x	x	x	x
Elikagaien teknologia	x	x					
Elikagaien teknologiaren alorra				x	x		
Elikagaien ingeniari-tza			x				
Nutrizio eta bromatologia alorra				x	x		
<b>Guztira</b>	<b>40</b>	<b>21</b>	<b>19</b>	<b>19</b>	<b>19</b>	<b>17</b>	<b>20</b>

**b) Irakaskuntza-zama**

Irakaskuntza-zama aztertzeke, 1995-1996 ikasturteko Irakaskuntza Antolatzeke Plana (IAP) hartu dugu abiapuntutzat, eta baita urte horretarako landu diren irakasleen plantila eta irakaskuntza-ahalmena.

Lehenengo eta behin, oharra egin behar dugu, alegia, dauden datuak ez datozela errealitatearekin guztiz bat, hurrengoak direla-eta:

- Kudeaketa akademikoko errektoreordetzak egiten du plana, matrikulazioa itixi gabe dagoenean, horren ondorioz irakasle gehiago edo gutxiago behar izatea gerta daiteke, praktiketako ikasgailetan, batez ere.

- Aldaketak gertatu ohi dira ikasturtean zehar, beste irakasle batzuk sartzen direlako edota dagoeneko direnak irakasle kidegoz aldatzen direlako.

- Sailen berregituraketa gertatu zen 1995-96 ikasturtean baina IAP ez zen horren ondorioz aldatu.

- IAP, orohar, ez da aldi-aldi eguneratzen edo kudeatzen eta zentroek (fakultateak edo eskolak) egiten dute irakaskuntzaren kontrola, ez IAP egin duen errektoreordetzak. Horri gagozkio-larik aipatu behar da IAPen taxuketa, eguneratzea eta mantenimendua aldatu egin direla, esan digutenaren arabera, eta Unibertsitatearen giltzarri den arlo batean erabil daiteke.

IAP aztertu ondoren atera ditugunak:

- Hogei sailek 95 ezagutza-arlo dituzte, sail bakoitzeko 4,75 arlo dago, batez beste. Osasun Zientzien Sailak ditu ezagutza-arlorik gehien: hamar.

- Zikloka, irakaskuntzako 3.670 orduak honela banatzen dira: ehuneko 70, lehen zikloan; ehuneko 30, bigarren zikloan eta gainerako ehuneko 10, doktoretzan.

- Irakaskuntza-mota kontuan hartzen badugu: ehuneko 36, teorikoa da; ehuneko 47 irakaskuntza praktikoa eta gainerako ehuneko 17a, bestelako irakaskuntza.

- Idazatiaren hasieran aipatu ditugun mugek ez digute uzten irakaskuntza-zamaren azterketa zehatza egiten; hala ere, joera atera daiteke dauden datuekin.

Batez besteko zama orokorra gehienekotik hurbil dago, sailen arteko alde nabarmenak diren arren: bada lehenbiziko sail-multzo bat non irakaskuntza-zamak irakaskuntza-ahalmena ere gaindizten duen (ingeniaritza mekanikoa, soziologia,

nekezaritza ekoizpena, estatistika eta ikerketa operatiboak, inguru naturaleko zientziak, osasun zientziak, eta ingeniaritza elektrikoa). Oro har, gehiegizko zama hori karguen ondoriozko murrizketei dagokie. Bada bigarren multzo bat irakaskuntza-zamaren gehienekotik hurbil dagoena, eta hirugarren bat irakaskuntza-ahalmenaren ehuneko 80aren azpitik dagoena (geografia eta historia, matematika eta informatika, psikologia eta pedagogia eta filologia eta hizkuntzaren didaktika).

Azpiratu beharra dago hirugarren zikloak, doktoretzak, irakaskuntza-zamaren ehuneko 10 egiten duela, gutxi gorabehera.

- Interesgarria da azpiratzea karguak dituzten (errektoreordea, saileko buru, dekan...) irakasleei aplikatzen zaizen murrizketa teorikoa 235,5 ordu iristen dela.

Kontuan hartzen badugu irakaskuntza-zama asteko 8 ordutan jarri dela, horrek esan nahi du 29 irakasle ari dela zeregin burokratikoetan.

Gure lanean jardun genuen bitartean, galdetegi bidali genien sail eta zentroei eta bietako zuzendariekin elkarrizketatu ginen. Hortik atera dugu:

- Departamentu guztiek baliabide gehiago eskatzen duten arren, ongi baloratzen dituzte unibertsitateak dituen gauza-baliabideak, oro har, batzuetan sailen arteko edo sail bereko alorren arteko desorekak aipatzen badira ere.

- Sail ezberdinen egoera eta arazoaren arteko alde handiak ikus daitezke. Alde horretan eragina dutenen artean aipa daitezke:

- . sailaren irakaskuntza-zama.

- . Irakasgaien mota. Egin beharreko praktikak zenbat eta nolakoak diren.

- . Errepiatzen duten ikasleen kopurua

- Irakaskuntzaren kontrola formal hutsa da eta berezita dago. Irakasteko ardura sailaren gain dagoen bitartean, kontrola zentroaren ardura da eta bertaratze-orriak izenpetu besterik ez da egiten, eta betebeharrak hori ez da beti zorrotz betetzen.

- Kontrol hori zailago da egiten klase praktikotetan, IAP egiteko garaian ez delako zehatz-mehatz jakiten matrikulazioak zenbat diren, eta ondorioz, zenbat irakasle beharko den ere ez.

- Unibertsitateak, gainera, inkesta bat egiten du ikasleen artean, eta zentroek edo sailek irakasleen balorazio orokorra jasotzen dute, eta ez banakako balorazioa, ordea: beraz, ez da erraza

izaten irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko neurriak hartzea.

Hala ere, irakasle batzuek zalantzan jarri dute inkesta horren emaitzen balioa, balorazio prozedura den aldetik.

– Oro har, irakaskuntza-arloka banatzen da irakaskuntza irakasleen artean, eta Unibertsitateak horiek banatzeko dituen irizpideak ez daude idatziz jasota. Hortaz, hurrengoak aipa daitezke erabiliaren artean:

- Aintzinasuna eta maila
- Eman beharreko ikasgaien kopurua.
- Irakasgaia nola egokitzen zaion irakaslearen profilari.

– Bada eskakizun orokor bat irakasle gehiago izateko, eta irakasleen kidegokoen eta kontratatuen arteko proportzioa lehenengoen aldera lerratzeko.

– Orokorrean, titulazio berekirik ez duten edo erdi mailako titulazioak dituzten sail edo zentroetan interes garbia dago Unibertsitateak titulazioa jar dezan edo ikasketak zabaldu ditzan, bigarren edo hirugarren ziklokoak ezarriz.

– Hainbat elkarrizketa egin dugu eta, gure ustez, zerbait adierazgarri ateratzen da horietatik, Espainiako Unibertsitateari, oro har, eta Nafarroakoari ere eragiten diona, alegia, irakasleek ikerketa-lanerako duten interes gero eta handiagoa. Alde batetik arauak eta bestetik giro orokorrak ikerketari ematen dioten garrantzi horrek ikerketa gainbaloratzeko arriskua ekar dezakete.

Ildo horretatik beretik, iritzi bat ere zabaldua dago: sailen arteko koordinazioa, eta sailen eta zentroen artekoa handiagoa balitz, gai bera ikasgai batean baino gehiagotan ikastea gertatzen den kasu batzuk saihestuko lirakeela.

Egindako lanetik atera dugun ondorioa da saila dugula Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketarako giltzarri-organoa.

Hala ere, ezagupen-arloa saila bezain garrantzizkoa dela atera daiteke praktikan, halako moldez non Unibertsitatea bere zatiketarik dituen "enpresa"tzat jo ordez, ezagupen-arloen eta departamentuen baturatzat jo daitekeen, askotan zisku itxien antzera aritzen direla, horien interes partikularra Unibertsitatearen orokorraren gainetik jarritz.

### VII.3. ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA.

Antolakunde baten eraginkortasuna aztertuko bada, erdietsi beharreko helburu zehatz eta neurriak izan behar dira aurretik.

Unibertsitatearen Eraberritzeari buruzko Legearen arabera: "Unibertsitateari dagokio goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa, eta irakaskuntzaren, ikasketaren eta ikerketaren bidez gauzatzen du.

Hurrengo eginkizunak ditu Unibertsitateak, gizaratearen zerbitzurako:

a) Zientzia, teknika eta kultura sortu, garatu, transmititu eta kritikatzeko.

b) Ezagupen eta metodo zientifikoak erabiltzea eskatzen duten jarduera profesionaletarako edo arte-sorkuntzarako prestakuntza.

c) Estatuko zein autonomia erkidegoetako kultura-, gizarte- eta ekonomia-garapenerako laguntza zientifikoa eta teknikoa.

d) Unibertsitate-kultura hedatzea".

Eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren estatutuen arabera, haren xede dira:

"a) Teknika, zientzia eta giza jakintzaren esparru guztietan, irakaskuntza ematen duenetan, profesional kualifikatuak prestatzea.

b) Zientzia, teknika, eta giza jakintzaren garapena bultzatzea, ikertzaileak prestatuz eta haren jarduera indartuz.

c) Unibertsitatearen zabalpeneko jarduerak, kulturalak eta prestakuntza iraunkorrekoak garatzea, Nafarroako Foru Komunitateari arreta berezia jarritz."

Xede orokor horiek ez dira geroko dokumentutan eta ekitaldi bakoitzeko urteroko aurrekontuetan garatu.

Egoera horrela, oso zaila da aurreikusitako xedeak betetze-maila baloratzen. Beraz, datu eta iruzkin zenbati agertuko ditugu, besterik ez, Unibertsitateak bere oinarritzko zereginetara, irakaskuntza eta ikerketari, ekiten dien modura hurbiltzeko-edo.

#### VII.3.1. Irakaskuntza.

Unibertsitateko irakaskuntzak kontuan izan behar du, lehenengo eta behin, sartzeko modua eta hark erakarritako ondorioak. Gaur egun, ikasketa ezberdinetara iristeko modua hutespen-azterketaren notan oinarritzen da, halako moldez non nota jakin bat gainditu duten ikasleak sartzeko diren karrera jakin batera. Nota hori, hala ere, dagoen eskariaren arabera finkatzen da. Sis-



tema honek objektibotasuna eta erraztasuna abantaila nagusi dituen arren, ez du errazten ikasleak interesa duten ikasketetan sartzea, eta horren ondorioz kale egiteak edo atsekabeak sor daitezke etorkizunean, errendimenduari eraginez.

1995-96 ikasturtean NUPen eman diren ikasgaien emaitzak aztertu ditugu. Horra ondorioak (ekaineko eta iraileko deialdiak hartu ditugu kontuan):

**a) Karreraka** (eranskinean jarri dugu banakaketa).

- 93.140 matrikulazio izan ziren (ikasle bakoitzak ikasgai bat baino gehiago hartu ohi du) eta 28.422 ikasgai geratu ziren gainditu gabe, ehuneko 31, alegia.

- Egindako matrikulazioetarik ehuneko 23 ez da azterketa egitera aurkeztu.

- Aurkeztu direnen ehuneko 10ak ez ditu azterketak gainditu.

- Badira hamabi karrera ikasgaia gainditzen ez dutenen batez bestekoa ehuneko 31 gainditzen duela; zaspitan, ikasgaia gainditzen ez dutenen portzentaia ehuneko 31 eta 25aren bitartean dago; eta sei kasutan ehuneko 25 baino gutxiago da.

- Karreraka, azpimarragarria da telekomunikazio ingeniarien kasua, plan zaharrea zeuden 300 ikasleek gainditzen ez dutenen indizerik altuena baitzeukaten; plan berriarekin, ordea, 7.275 ikasle daude eta portzentaia ehuneko 29 da.

- Orokorrean esan daiteke industri ingeniarietza teknikoak direla arazorik handienak agertzen dituztenak ikasgaia gainditzeko, eta magisteritzako adar ezberdinak eta erizaintza-ikasketak beste muturrean daudela.

**b) Ikasgaika:**

Hurrengo laukian agertuko dugu 95-96 ikasturteko emaitzaren laburpen xumea, eta lerrun bakoitzerako (ikasgaia gainditu ez duten ikasleen portzentaia) jarriko dira: ikasgai-kopurua, matrikulatu diren ikasleen guztizko kopurua eta gainditu ez dutenena.

Ez dute gainditu	Ikasgaiak	Gainditu ez dutenak, guztira	Ikasleak, guztira
=>% 50	98	9.071	15.347
%50-30	189	12.096	29.747
%10-30	277	6.295	31.163
%0-10	161	971	16.246
%0	40	–	637
Guztira	765	28.433	93.140

Era berean, NUPek emandako tituluak aztertu egin dira, eta ikasketen iraupena, ahal izan denean.

Hona ateratako emaitzak:

Titulazioa	Iraupen teorikoa	Tituluak	Iraupen kontrolatuko tituluak
Industri Ingeniaria	5	102	53
Gizarte Graduatu Diplomata	3	399	449
Industri Ingeniari Teknikoa	3	459	361
Nekazaritza Ingeniaria	5	96	34
Telekomunikazio Ingeniaria	5	36	17
Enpresa Zientzien Diplomata	3	827	426
Erizaintza Diplomata	3	255	226
Gizarte Lanean Diplomata	3	306	202
O.H.O.ko Irakasletza Diplomata	3	208	167
Nekazaritza Ingeniari Teknikoa	3	111	83
Soziologian Lizentziatua	4	84	51
Ekonomian Lizentziatua	4	142	
Enpresen Adm. eta Zuz. Lizentziatua	4	379	64
Lan Harremanetan Diplomata	3	180	88
Gizarte Lanean Diplomata	3	82	–
<b>TITULAZIO BERRIAK, GUZTIRA</b>		<b>3.666</b>	<b>2.221</b>
Aintzineko eskolatan ikasi eta NUPeko titulua		1.098	
<b>TITULUAK, GUZTIRA</b>		<b>4.764</b>	

Ikus daitekeenez, eman diren 4.764 titulueta-rik, 3.666 NUPen osorik egindako tituluei dagozkie, eta horien artean, 2.221 kasutan dago ikasketen iraupenari buruzko daturik.

Erabili diren sistema informatiko ezberdinen ondorioz gertatu da hori.

Lagina txikia da oraindik, baina ondorioek NUPen joeraren nondik norakoa erakusten dute.

Eskueran genituen datuen azterketa orokorra eginez gero ateratzen da guztiz kontrolatu diren 2.221 titulueta-rik ehuneko 59 atera direla ikasketen planetan agertzen diren urteetan. Hala ere, azpimarratu behar da titulazioen kopurua txikia dela ikasketei ekin zieten ikasle-kopuruarekin alderatuz gero. Ikasleen datuen arabera (ikus idazati hori), matrikula egin duten ikasle guztiek ikasketen plan ezberdinetan aurreikusten diren ikasketen guztiak amaituz gero, iraupen kontrolatua zuten 2.221 tituluak bider hiru edo lau izango lirateke.

Uste dugu NUPek tituluz tituluz aztertu behar dituela ikasleen ikasketen benetako desbiderapena eta haren zioak, eta baita karrera bakoitzean gertatzen diren kale egiteen arrazoiak ere.

Beste unibertsitate-zentroei buruzko daturik ez dugunez gero, ezin ditugu hemen ateratako horiek baloratu, eta, jakina, ez dira kalitatearen ebaluazioa (ikasleen prestakuntza-maila), gainditu diren

ikasgaien kopuruari buruzko alde koantibioa besterik ez da.

Azpitarragarria deritzogu, ordea, 95-96 ikasurtean, matrikulazio guztien ehuneko 31k ikasgaia gainditu ez izana ekain-iraileko deialdietan.

Errepikapen-portzentai horrek nabarmen eragiten die ikasurtearen programazio eta plangintzari, errepikapenak gertatzen diren ikasgaietan ikasle gehiago izango direlako eta, ondorioz, taldeak handitu beharra (ikasgelak eta irakasleak), eta horrek zailtasun handiagoa dakar oraindik ikasgaiak praktikak behar baditu.

### VII.3.2. Ikerketa.

Ikerketa oinarrizko eta ezinbestekotzak jotzen dute, bai unibertsitatearen helburu den aldetik, bai irakaskuntzarako baldintza egokia den aldetik. Unibertsitateari buruzko arauetan, ordea, ez da ikerketari buruzko aipamenik apenas aurkitzen, askatasun akademikoaren hatsapena alde batera utzita, katedra, ikerketa eta ikasketa askatasunetan gauzatzen baita, eta baita ere sailen eginkizuntzat hartzen denean ikerlana eta beren jakintza arloetako irakaskuntzak antolatzeke eta garatzeko ardura.

Irakaskuntzari buruzko baloraziorik egitea zaila bada, are zailago ikerketari buruzkorik, ez bakarrik alde koantitatiboaren ikuspuntutik, baita ikerketamota ezberdinak, oinarrizkoa eta aplikatua, alde-ratzeko zailtasunaren aldetik ere.

Praktikan, Unibertsitateak ikerketa-planik ez duenez, irakasle bakoitzak aukeratzen ditu bere ikerketak, nahiz eta, askotan, aukeraketa horrek dagozkion organismoek ezarritako planen menpe egon behar duen, beharrezko finantzaketa izaten baitute, edota bestelako finantzabideak eskuratzearen menpe.

Bi alderdi jorratu ditugu ikerlanari hurbiltzeko: ikerlana dela-eta irakasleei ordaindutako osagarriak eta ikerketa-proiektuen ondorioz ateratako dirusarrerak.

#### a) Ekoizkortasun osagarria (ikerlana dela-eta)

Indarreko legediaren arabera, irakasleek sei urtero jarri ahal izango dute egindako ikerlana Batzorde Nazional batek egindako ebaluazioaren menpe. Batzorde hori Hezkuntza eta Kultura Ministerioko eta autonomia erkidegoetako ordezkariak osatzen dute eta Batzordeak zientziaren komunitateko kide garrantzizkoen aholkularitza eska dezake.

Ebaluazioa positiboa bada ekoizkortasun-osagarria esleituko da.

Kidegoa edo postua aldatzen duen irakasleak aintzineko lanpostuan esleitu zioten osagarria gordeko du berrirako.

1996ko uztaileko datuen arabera, hurrengoak dira NUPeko irakasleen kidegoetako langileek ateratako osagarriak edo zatiak:

	Irakasleen kidegoen plantila	Osagarria duten irakasleak plantilaren	
		zenbat	g. %
U.K.	40	30	75
U.E.K.	18	5	28
U.T.	127	24	19
U.E.T.*	85	-	-
	270	59	22

\* U.E.T. izateko ez da beharrezkoa doktore-tesia egina izatea.

Ikerlana dela-eta osagarria aitortu zaien 59 irakasle horietarik 19k zati bat baino gehiago dute, 59 irakasleen artean 86 zati dituztelarik.

1997ko maiatzean, azken deialdiaren ondorioz, beste 10 irakasleri esleitu zaie osagarria, eta 14 zati gehiago eman dira, guztira. Hona banaketak:

	Irakasleen kopurua	Zatien kopurua
Unibertsitateko katedradunak	31	57
Unibertsitate Eskolako Katedradunak	5	6
Unibertsitateko titularrak	33	37
Guztira	69	100

#### b) Ikerketaren ondoriozko dirusarrerak

Proiektuek eta lanek kontabilitate berezia dute, horiei buruzko eragiketak ez direlako jasotzen izaera ekonomikoaren arabera, baizik eta proiektuka biltzen, eta gerakinak, halakorik bada, helburu horretarako mantentzen dira.

Hurrengo laukian agertzen dira 1995eko datuak:

	Aurreko urtetakoak	1995	Guztira
Gerakina	152.814.399	-	152814.399
Urteko dirusarrerak	-	192.901.680	192.901.680
Urtetako dirusarrerak, guztira	-	-	345.716.079
Gerakinaren gastua	94.575.594	-	94.575.594
1995eko gastua	-	99.930.587	99.930.587
Gastua, guztira	-	-	194.506.181
Azken gerakina	58.238.805	92.971.093	151.209.898

Urteko gastuetatik, Unibertsitatearen inbertsio-tzat jaso dira, aipatu proiektuen kargura,

31.276.399 pta. ondasunetan eta 4.104.870 bibliografian.

Gorago ikusi dugun legez, NUPEk era horretan finantzatu dituen inbertsio guztiek 156,7 milioi pezeta jotzen dute.

Proiektu horien gainerako gastuak partehartzailen ordainsariak eta burutze-gasutak dira, oro har.

Ikerlanen zati nagusia irakasleen kidegoetakoek burutzen dute eta kontabilitatean ez dira bereizten irakaskuntzari dagokion soldata-zatia eta ikerketari dagokiona.

Jotzen baldin badugu batari zein besteari emandako denbora erdibanatu egiten dela -gogorra bedi, hala ere, arauak irakaskuntza-betebeharrak baino ez dituztela jasotzen eta 8 ordu asteko ezarri dizkietela titular eta katedradunei eta 12 unibertsitate eskolako titularrei- ikerlanetan ari diren langileen gastuak 677 milioi pezeta jo zuen 1995ean. Funtzionarioez ari garenez, kopuru

horrek ez du hartzen eskubide pasiboengatiko kuota patronalik.

#### VII.4. KOSTUEN AZTERKETA.

Ez Unibertsitateak, oro har, ezta NUPEk ere ez dute kostu-kontabilitaterik garatu, eta ezinezkoa da kostuen kalkulurik egitea edo kostuen adierazlerik izatea.

Kostuei buruzko azterketa zorrotza egin ahal izateko, hainbat gauza adostu behar dira, hala nola: ibilgetuen balorazioa eta amortizazioen politika, kostuen kalkuluan sartu beharreko gastuak, ikasle-mota ezberdinak kontuan hartzea, eta abar.

Horiek horrela eta datuak behar bezalako arretaz hartuta, irakaskuntzaren kostuetara hurbil gaitetzeke, 1995eko ikasletzat hartzen baldin badugu 94.12.31n eta 95.12.31n zeudenen batezbesteko ponderatua (ikus VII.II.C epigrafeko laukia), hau da, 8.904 ikasle.

$$C_1 = \frac{\text{Gastuen kapituluaren guztizko likidazioa}}{\text{ikasle kopurua}} = \frac{4.622.936.192}{8.904} = 519.197 \text{ pta. ikasleko}$$

$$C_2 = \frac{\text{Gastuen guztizko likidazioa} - \text{proiektuei atxikitako gastuak}}{\text{ikasle kopurua}} = \frac{4.356.633.006}{8.904} = 489.197 \text{ pta. ikasleko}$$

$$C_3 = \frac{\text{Ohiko gastuak} - \text{proiektuei atxikitako gastuak}}{\text{ikasle kopurua}} = \frac{3.550.045.487}{8.904} = 398.702 \text{ pta. ikasleko}$$

Lehenengo bietan urteko inbertsioak sartzen dira, baina ez amortizazioak, hirugarrenean, aldiz, ez dira ez inbertsioak ez amortizazioak sartzen. Beti izan behar da kontuan, funtzionarioen gizarte-segurantza sistema dela-eta, ez direla kostu batzuk sartzen, gizarte-segurantza sistemarendako enpresario-kuota, adibidez. Bai, sistema orokorrean afiliatua dauden langileena, ordea.

#### VII.5. BATERAEZINTASUNAK.

Langileen atalari eskatu egin zitzaion 1996ko bigarren hiruhilekora arte bestelako lana betetzeagatik bateratzeko eskaria egin zuten irakasleen zerrenda.

Aipatu atalaren arabera, 104 irakasle dira egoera horretan, honela banatuak:

• Unibertsitateko titularrak:	9
• Unibertsitate eskolako titularrak	2
• Unibertsitateko titularrak, bitartekoak	1
• Elkartuak	92
Guztira	104

Bateratzearen dokumentazioa egiaztatzeko asmoz, 20 espediente aztertu dira, eta 12 irakasle titular sartu dira hor.

Lagineko %80 administrazio publikoarekin zerkusia duen jarduera nagusia duten irakasleak dira eta gainerakoak, %20, sektore pribatukoak dira.

Bai batzuk, bai bestezuk dute konpatibilitate dokumentua, administrazio publiko batek egin. Sektore pribatuan lanean ari direnen kasuan, Nafarroako Gobernuak emana da.

Irakasle titularrek ezinbesteko dute bateratze-dokumentua aurkeztea lanpostuaz jabetzeko.

Nafarroako Gobernuko funtzionarioek, oro har, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren Ebazpen bat aurkeztu ohi dute, baina Osasun Departamentukoek ziurtagiria aurkeztu ohi dute.

#### VIII. NUPEKO ETORKIZUNAREN AURREKO HAUSNARKETAK.

Erronka askori egin behar dio aurre NUPEk etorkizunean, "jaioberri"tzat jo baidezakegu: uni-

bertsitate ereduaren definizioa, plantilen osaketa, irakaskuntza eta ikerketarako plan estrategikoa egitea, urteko helburuak zehaztea, titulazioen mapa eta hura jartzeko edo mantentzeko irizpideak, unibertsitatearen finantzaketa, erakundea beharrian berriei egokitzea, eta abar.

Atal honetan hausnarketa laburra egingo dugu unibertsitateare finantzaketa eta titulazio berriei buruz.

Unibertsitatea, gaur egun, ikasleek ordaintzen dituzten prezioekin, %20 gutxi gorabehera, eta Administrazioak ematen dion dirulaguntzarekin finantzatzen da. Ikerketa-proiektuen bitartez ere lortzen da finantziazio gehiago.

Ahalik eta finantziazio gehien lortu behar da ikerketa-proiektuen bitartez, baina ohiko hiru bide horietaz landarat, uste dugu etorkizunean garrantzizkoa izan daitekeela fondo pribatuak borondatezko ekarpenen bitartez lortzea. Cadizen, 1996ean, Unibertsitate Kudeaketari buruzko XV. Jardunaldietan aurkeztutako azterlan baten arabera, Estatu Batuetako unibertsitateek 12,4 miliar dolarre eskuratu zuten finantzaketa pribatutik. Horra finantzaketaren jatorria:

Ikasle ohiak	% 28
Beste norbanako batzuk	% 23
Sozietate anonimoak	% 20
Fundazioak	% 20
Erlijio erakundeak	% 2
Bestelako erakundeak	% 7

Europako eta Ameriketako unibertsitate-ereduen arteko aldea handia bada ere, bestelako kontsideroetan sartu gabe, uste dugu Unibertsitateak planteatu egin behar diola bere buruari halako finantzaketa lortzea eta, ildo horretatik, etorkizun hurbilean arlo pribatuko fondoak eskuratzeko bide emango duten neurriak hartzea.

Erakunde gazte ororen inertziak hazteko joera du. Unibertsitatearen kasuan, titulazio gehiago izatean gauzatzen da hori.

Hainbat eragile dago beste titulazio batzuk jartzeko: ikasleek hala eskatzea, unibertsitatearen hazkundea, beharrian berriei egokitzea, irakasleen eskaria, eta abar...; baina sistemak ez du berdin jokatzen titulazioak kentzeko garaian.

Gaur egun NUPa heltzen ari diren gazteak jaiotze-tasa handiko garaian jaiotakoak dira. 1975ean, esate baterako, mila biztanleko 17,92. Data horretatik aitzina behera egin du indize horrek eta 1987tik aurrera ez da mila biztanleko 10era heltzen.

1975 eta 1978 urteen bitartean jaiotakoak iritsi dira Unibertsitatera azken lau urteotan. Horra jaiotzeen datuak

Urtea	Jaiotzak
1975	8.638
1976	8.686
1977	8.313
1978	7.841
Guztira	33.478

2014. urtean helduko dira Unibertsitatera 1995ean jaiotakoak. Jotzen baldin badugu ziklo luze eta laburreko karreraren artean batezbesteko iraupen teorikoa 4 urte dela eta 1995a baino lehena-goko lau urtetan jaiotako kopurua hartzen baldin badugu, hauxe ateratzen da:

Urtea	Jaiotzak
1992	4.578
1993	4.696
1994	4.706
1995	4.603
Guztira	18.583

Horrek esan nahi du hogeit hamar urte baino gutxiago epean ikasle izan daitezkeenak ehuneko 44 jaitziko direla.

Jaiotzei buruzko datuak bakarrik nahikoa ez diren arren, unibertsitate-eskariarekin zerikusia duten beste faktore batzuk ere badirelako, joera oso argia da eta, ondorioz, nabarmenago gertatzen da etorkizunari begira estrategia bat izan behar dela, lehen esan dugun bezala.

Logikoa denez, alderdi horiek guztiek eragin handia izango dute unibertsitatearentzako funtsezko den arazo batean: titulazio gehiago izatean, alegia.

Gure ustez, beste titulazio batzuk ezartzeko gaur egun diren prozedurez gain, kontuan hartu beharko litzateke iraupen mugatuko titulazio berekiak jartzeko aukera. Hau da, "Lantegi-eskoletan" erabilitako irizpideei jarraituz egindako unibertsitate-ikasketak, promozio-kopuru mugatua duten titulazioak ezarriz. Jakina, egun dagoen irakasleak erabili beharko dira horretarako eta beste batzuk kontratatatu, proiektuak irauten duen bitartean.

Horrelako sistema batek bide emango luke unibertsitatea gizarte-beharrizanei egokitzeko, hainbat aldiz aipatu dugu hori, eta titulazio berekiak izateak askatasun osoa emango luke ordain-

du beharreko prezio publikoak erabakitzeke garaian. Beka-politika ere erantsi beharko litzateke, hala egokituz gero.

Begibistakoa da etorkizun hurbileko aldaketak beste aldi historiko batzuetan baino askoz azkarrago gertatuko direla eta, ondorioz, beharrian horiei ondoen eta azkarren egokitzen zaizkien unibertsitateak gailenduko direla, edo gizartearen aurrean itzala ematen dioten irakaskuntza- edo ikerketa-zerbitzuak dituzten haiek.

Azken finean, helburu horietara bideratzen dira goi mailako irakaskuntzan ari diren erakundeen kalitatea, aldez edo moldez, baloratu nahi duten jarduketara guztiak.

Iruñean. 1997ko ekainaren 17a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

## **1. ERANSKINA. NUPEk BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTU DIZKION ALEGAZIOAK.**

Hurrengo puntu eta kontsideroak azpimarratuko dituzte Kontuen Ganbarak Nafarroako Unibertsitate Publikoari egin dion kanpoko irakaskuntza-auditoriako txosten behin-behinekoari egindako alegazioek:

### **Kontabilitate-sistema**

Ondorioei buruzko a) ataleko zazpigarren puntuak eta Gomendioei buruzko b) ataleko hirugarren puntuak, kontabilitate-sistemen mugak aipatzen dituzte eta esandako sistemak "ahalik eta gehiena garatzea" gomendatzen dute.

Horri gagozkiola, hobe litzateke gomendatzea ahalik eta garapenik handiena "sustatzen jarraitzea", izan ere, ekitaldi honetan Kontabilitate Sistema Bateratua (SIC2) aplikatzen ari delako. Sistema hori unibertsitateetarako egina dago eta aurrekontu-kontabilitatea zein ondarezkoa biltzen ditu eta, ildo beretik, unibertsitateen arteko lankidetzaren hitzarmenen baitan CANOA programa lantzen ari dira, kostu-kontabilitateari buruzkoa berau.

Era berean, 1997ko ekitaldirako, programako aurrekontua landu eta onetsi da eta informazio gehiago izatea ekarriko du horrek.

Alor honetan, gainera, ezin dira ahaztu edo aintzat hartu gabe utzi kostuen kontabilitate-sistema edozein administrazio publikotan ezartzeak dakartzan zailtasunak. Egia esateko, oso gutxi dira aplikazio hori duten enteak, eta, praktikan, ezagutzen diren kostuak kontabilitatez bestelako moduen arabera finkatu dira.

Horri gehitu behar zaizkio Espainiako Unibertsitatearen berezitasunak, irakasle eta ikertzaile diren langileak bi alorrotan aritzen baitira, izenak berak dioenez. Eta irakaskuntzari eman beharreko denbora argi eta garbi finkatuta dagoen bitartean, ikerketan ematen dena ez dago horrela, eta bakoitzaren dedikazio, borondate eta ahalmenaren arabera da.

### **Helburuak finkatzea**

Unibertsitatearen xedeak eta finantzaketa ukitzen dituen 2. puntuak, esaten da Unibertsitatearen eredu orokorra finkatu ondoren, urtero, aurrekontuekin batera, onetsi beharko liratekeela lortu beharreko helbururak, "berehalakoak eta koantifikatzen errazak, bistan da: azterketak gaintu dituztenen kopurua, irakurritako tesiak, egindako argitalpen zientifikoak, ikerketarekin ateratako dirusarrerak, eta abar... eta irakaskuntzaren eta ikerketaren kalitatearen inguruan ezartzen direnak ere".

Unibertsitatean urtero erdietsi beharreko helburuak izatea desiratzekoa bada ere, irakaskuntzaren eta ikerketaren kalitatea hobetzea lortzeko diren neurrian, aipatzen diren bezalako datu zenbakarrietara itzultzea egoki ez izatea gerta daiteke.

Zail da irakaskuntza zentro batek aurretik ezartzea gaintutako dutenen portzentaia, esate baterako, ez baitago irakasleen borondate eta trebeziaren menpe soilik, ikasleen dedikazioarekin eta bakarkako lanarekin zerikusia baduelako. Alderantziz, finkatutako aprobaturak indizea errespetatu daiteke, formaren aldetik, baina indizeak dioena betetzeak ez luke adieraziko prestakuntzaren kalitatea, eta ez litzateke zuzena izango beste urte batzuetako irakasleak kontuan hartuz gero, bestelako portzentaia tokatu zitzaielako-edo, gaintutako edo ez gaintutako proportzioa bestelakoa izango litzatekeelako, ez merezimenduen arabera, erdietsi beharreko helburu formalari men egitekoa baizik.

Horrekin batera, Unibertsitatean irakurritako tesien zenbakizko balantzea ona izatea desiratzekoa bada ere, alor horretan ez dira beti bat etortzen tesiaren kalitatea eta interesa eta horretan emandako denbora, eta tesia egiten ari direnak ere ezin dira doktoretza-tesia denbora jakin batean bukatzera behartu, urtero irakurri behar diren tesien kopurua lortzearen.

Hori guztia horrela, ñabardurak ezarri behar zaizkie atal honetan jaso diren kontsidero eta ondorioei, ez datozelako unibertsitateko errealitatearekin bat.



### Finantzaketa

Behin-behineko txostenaren hainbat ataletan aipatu da Unibertsitatearen egungo finantzaketa, oro har, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarena, bereziki. Txostenak gai hau behar bezala kokatuko badu, egun iritzi publikoan eta Espainiako administrazio publikoetan dagoen eztabaida aipatu behar du: Unibertsitatearen finantziarioari buruzko eztabaida, alegia.

Unibertsitatearen eredia finkatu eta gero, egun ari dira Espainiako botere publikoak eta Unibertsitatea aitzinatzen eta zehazten Unibertsitatearen finantziarioa, eta diren finantziario-iturri edo bideek hartuko duten proportzioa: erabiltzaileek, aurrekontu publikoek, Unibertsitateak emandako zerbitzuak ordaintzeak, kanpoko dohaintzek, irakasle ohien elkarteek...

Estatuak, Autonomi Erkidegoak eta Unibertsitateak hitzartu egin behar dute Unibertsitatearen finantziarioa nolakoa izango den. Unibertsitateak goi mailako irakaskuntzaren zerbitzu publikoa eraginkortasunez emango badute, beharrezko da aipatu finantziarioa nolakoa izango den jakitea, aurretik, gizartearen eskariari erantzuteko urte anitzeko plangintza egin ahal izateko.

### Ikasle/irakasle erlazioa, 1989/95

Bestelako datuak zehatz-mehatz aztertzen sartu nahi ez badugu ere, aipatzekoa da, nabarmenagia delako, 1989 eta 1995 bitarteko ikasle/irakasle erlazioaren bilakaeraren konparazioak duen informazio balio eskasa argitu ez izana. VII.II.B Irakasleak eta Ikasleak atalean ageri da hori.

Gauza jakina da, unibertsitateko irakasleez ari garela, eta unibertsitateen arteko konparaketak egin nahi baditugu, edo unibertsitate berekoak, baina urte ezberdinetan, ez duela ezertako balio irakasleen datuak ematea, dedikazioa aipatu gabe. Horregatik, lanaldi osoko irakasleak hartzen dira, eskuarki, unibertsitateen arteko alderaketak egiteko. Bestela, eta unibertsitatean horrelako estatistikak erabiltzen dituen edonork daki hori, kopuruek ez dute balio, irakasleen kidegoetako lanaldi osoko irakasleak, lanaldi partzialekoekin edo bestelakoekin (elkartuak) nahasten direlako, azken horien dedikazioa lanaldi partzialekoa izan ohi delako, eta lanaldi partzial hori ere ez delako homogeneous izaten.

Hori dela-eta, behin-behineko txostenean aipatzen den laukia jartzerakoan, aipatu heterogeneitatearen berri eman behar da.

### Nafarroako Unibertsitate Publikoaren esparrua

Txostenean zehar eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren esparruaz ari denean, bereziki, hainbat gauza esaten da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren epe laburrerako eta ertainerako estrategia aurreikusiko duen dokumenturik ezaz eta unibertsitateko irakasleen plantilak finkatzeko irizpiderik ezaz.

Horri bagagozkio, gogoratu beharra dago Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gobernu Batzordeak, 1996ko abenduaren 20an izandako bilkuran, onetsi zuela hurrengo izena daraman dokumentua: "Irakaskuntza eta ikerketa langileen plantila eredia egiteko irizpideak". Dokumentuaren 1. puntuan agertzen dira horren helburuak. Hona:

- Unibertsitateak lortu nahi dituen irakaskuntza- eta ikerketa-kalitate bikainaren helburuak erdiesteko behar dituen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko laguntzea, unibertsitateen arteko lehiakortasun-egoerari erantzuna eman ahal izateko

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko gobernu organoen jarduketetan gardentasun handiagoa izateko moduko arau-multzoa edukitzea, unibertsitateko irakasleen postuen dotazioari buruzkoan.

- Epe labur eta ertaineko benetako ikuspegiak eskaintzea unibertsitateko komunitateari, hurrengo urteetako plangintza akademikoaren norabidea finkatzeko eran.

Beste gauza batzuek ari garela, urte bakoitzean maiztean egiten da Irakaskuntza Antolatze Planoa, ikasgai aukerazkoen eta askeen eskaintza onetsi eta gero, eta unibertsitate zentroek eta Gobernu Batzordeak teoria-multzo ezberdinak onartu ondoren.

Aipatu planak Departamentuen eta unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-zamaren aurreikuspena eta banaketa egiten ditu eta hurrengo ikasturterako beharko diren irakasle eta ikertzaileak planteatzen. Ikasturtea hasi eta berehala ekiten zaio Irakaskuntza Antolatze Planoa (IAP) eguneratzeari, ikasleek matrikula egin ondoren eta klaseen talde-banaketa behin betikoa egin eta gero, benetako matrikularen arabera.

Horri buruz esan behar da IAP plangintza dugula, berez, eta gutxi gorabeherako datuetan oinarritzen dela batzuetan, maiztean egin beharra dagoenez, ezin baitzaio itxaron ikasleen matrikulazio benetakoa eta klase-taldeen behin betiko taxuketa zeintzuk diren jakiteari, matrikulari itxaron ezker ezin izango genukeelako irakasle eta ikertzaileei buruzko aurreikuspenik egin urriaren amaiera arte edo, ikasturtea hasita, beraz.



IAP eguneratu egiten da urtean zehar, benetako matrikularen arabera eta irakasleen plantilak izan dituen aldaketen arabera.

Azkenik, esan beharra dago azterketa burutzen ari direla Unibertsitatearen jarduera ekonomikoaren urte anitzeko plangintzari ekiteko oinarriak

ezartzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoak hurrengo urteetan izango dituen finantzaketa-beharrizanak eigituratu eta zenbatesteko asmoz.

Iruñean, 1997ko ekainaren 12an

Errektorea: Antonio Pérez Prados

## **Iruñeko espetxeari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Iruñeko espetxeari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1997ko irailaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Iruñeko espetxeari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (28. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (29. or.).
- III. Nafarroako Gobernuaren ekarpenen eta diru-sarrereren laburpena 1989-1996 (30. or.).
- IV. Ondorioak eta gomendioak (0. or.).
- V. 1996ko ekarpenen eta dirusarrereren analisia (31. or.).
  - V.1. Langileria-gastuak (31. or.).
  - V.2. Ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketak (32. or.).
  - V.3. Ohiko transferentziak (33. or.).
  - V.4. Inbertsioak (33. or.).
  - V.5. Tasak eta bestelako dirusarrerak (33. or.).

#### **I. SARRERA.**

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak, "Eusko Alkartasuna" Parlamentari Taldeak hala eskatuta, 1996ko azaroaren 12an "Iruñeko espetxeari ematen zaizkion laguntza publikoak, Estatuko Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko 1989ko Akordioaren ondoren" gaiari buruz Nafarroako Kontuen Ganbarari fiskalizazio-txosten bat eskatzeko erabakia hartu zuen.

Eskaera hau dela-eta, Kontuen Ganbarak aipatu lana 1997rako jarduketa-programaren barnean sartu du.

1989ko Akordio horren aurrekariak hauek dira: espetxe-arloko eskumen guztiak Estatuari eman zizkion 1922ko abenduaren 5eko Errege Dekretua eta horretatik Nafarroa salbuesten zuen eta probintziako presoek sorturiko gastuak haren ardura-

pekoak bakarrik izango zirela ezartzen zuen 1923ko martxoaren 21eko Agindua.

Ondoren, xedapen horiek zehazten zituzten hainbat arau onesten joan ziren, eta, azkenik, aipaturiko 1989ko Akordioak Iruñeko espetxeko kudeaketan erantzukizun-banaketarako behin-behineko irizpideak ezarri zituen, Estatutik Nafarroara espetxe-arloko eskumen-transferentzia egin bitartean.

Akordio horrek zera dio:

"a) Iruñeko espetxeko presoek elikagaiak emateko, Foru Administrazioak helburu horri aplikatu dakioken aurrekontu-dotazio kontsignatu bat esleituko du. Ildo honetan, Estatuko Administrazioak bi hilabetero ordainduko du 1988ko ekainaren 2ko Justizia Ministerioko Aginduan edo etorkizunean emango diren ezarritako kopuruen %50a, zentroan dauden preso guztiengatik.

b) Iruñeko espetxean egin beharreko inbertsioak honela finantzatu dira:

1.- Material-ordezketak eta hornidura, konponketak eta obra txikiak Nafarroako Foru Administrazioaren kargura egongo dira osoki.

2.- Instalazioen hobekuntza edo zabalketa ekarriko duten inbertsioak erdi bana ordainduko dituzte Estatuko Administrazioak eta Foru Komunitateko Administrazioak, beharrezkoa izanik horien arteko aurretiazko adostasun bat inbertsio horien zenbatekoari buruz.

c) Langileria. Arlo honetan, orain arte 1923ko martxoaren 21eko Errege Aginduaren, 1942ko maiatzaren 23ko Aginduaren eta 1968ko urriaren 7ko Diputazio Erabakiaren babesean aplikatu diren irizpide berberei eutsiko zaie, beti ere Funtzio Publikoaren arloan indarrean dagoen legedia errespetatuz.

d) Gizarte-zerbitzuak ematea eta presoek bizi-baldintzak hobetzea, bi administrazioek erdi bana finantzatu. Jarduketa honek arlo hauek hartuko ditu bere barnean:

1.- Kultur heziketa, lehen, bigarren eta unibertsitate-mailako hezkuntza eta lanbide-heziketa, urruneko hezkuntzako tekniken bidez eta, hala bada, lekuan lekuko irakaskuntzaren bidez.

2.- Okupaziozko tailerrak sortzea.

3.- Kirol-jarduera, kultura fisiko eta aisialdiko programak ezartzea.

4.- Hirugarren graduko presoentzako behin-behineko enplegurako programetan lanak egiteko lankidetzak.

5.- Laguntza ekonomikoa presoen familientzat.

6.- Preso ohien bergizarteratzea.”

Aurrekari hauetatik abiatuz, ikus dezakegun errealitatea zera da: Nafarroak etenik gabe parte hartu du probintzia-espetzeak eragindako gastuen finantzaketan, eta, bestalde, Foru Diputazioak administrazio-eginkizun batzuetan parte hartu du; adibidez, funtzionarioak izendatzeko hainbat proposamenetan, plantilak eta hainbat gastu onestea eta abar.

Era berean, Nafarroako udalerrri batzuek espetearen kostuaren finantzaketan parte hartu dute, azken urte hauetan Iruñeko Udalak soilik lagundu badu ere.

Jarraian, 1989tik 1996rako ekitaldietan Nafarroako Gobernuak espetearen finantzaketan izan dituen gastuak eta Estatutik eta Iruñeko Udaletik jasotako dirusarrerak azaltzen dira.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA.

Eskatu bezala, fiskalizazio-lanaren helburua zera izan da: *“Nafarroako Gobernuaren programetan espetxean eta espetxearekin buruturiko jarduketak edo harremanak (langileria, obrak, elikadura...) xedetzat dituzten dirulaguntzen aplikazioa egiaztatzea”*.

Aurreko idazatian deskribatu dugun bezalaxe, hertsiki dirulaguntzak izan baino, Iruñeko espetzeak dituen hainbat gastutan Nafarroako Gobernuak duen partehartzea dira.

Horrela, 1989tik aurrera, hau da, Estatuko Justizia Ministerioarekin dagoen akordioa sinatu zenetik, Nafarroako Gobernuak eginiko ekarpen eta dirulaguntzak lortu ditugu, txostenaren hurrengo epigrafean, “Ekarpenen laburpena” deiturikoa, agertzen direnak, arreta azken ekitaldian (1996ri dagokiona) emandako laguntzen berrikuspen eta aplikaziora zuzenduz, espetearen gaintzeko gastuak ikuskatzeari ekin gabe, Estatua- ren ardurapeko Entitate bat baita, eta hori fiskalizatzeko eskumenik ez dauka Ganbara honek.

Azalduriko helburua lortzeko aplikatu dira fiskalizazio-programak, Kontuen Ganbarak onetsiak direnak eta auditoretza-prozedurei buruzko bere gidan daudenak.

Gure lanaren helburua erdiesteko, honakoak ere aztertzen jardun dugu:

- Espetxe-gaian Nafarroako Gobernuak eta Foru Komunitateko udalek dituzten eskumenak eta horiek espetxe-gastuei ere aurre egiten laguntzeko dituzten obligazioak.

- Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren arteko denboraldi baterako eta behin-behineko lankidetzak-akordioa, 1989ko ekainaren 14koa, ea indarrean dagoen.

Zelai-lana auditoretza-teknikari batek eta auditore batek osaturiko taldeak burutu du, 1997ko urtarrilean eta otsailean, eta Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratibo- en etengabeko laguntza ere izan du.

Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizateko Departamentuko langileei eta espetxean Justizia Ministerioak dituen lan honen prestakuntzan eman diguten laguntza eskertu nahi diegu.

**III. NAFARROAKO GOBERNUAREN EKARPENEN ETA DIRUSARREREN LABURPENA.**

Iruñeko espetxea 1989-1996

Gastuak	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	Guztira	Guztira 1990-1996
Langileria-gastuak	30.613.841	34.183.404	34.283.245	21.566.463	18.087.658	19.828.992	17.937.025	22.279.353	198.779.981	168.166.140
Ohiko ond. ta zerb. gast.	52.341.271	51.113.067	63.902.776	67.485.760	78.015.143	90.362.245	85.704.407	79.857.793	568.782.462	516.441.191
Ohiko transferentziak	935.400	961.500	963.000	999.500	1.056.500	1.059.500	1.157.000	1.355.300	8.487.700	7.552.300
Inbertsio errealak	31.517.654	14.897.901	27.110.890	10.496.088	9.521.618	3.095.564	27.617.556	22.751.600	147.008.871	115.491.217
<b>Guztira</b>	<b>115.408.166</b>	<b>101.155.872</b>	<b>126.259.911</b>	<b>100.547.811</b>	<b>106.680.919</b>	<b>114.346.301</b>	<b>132.415.988</b>	<b>126.244.046</b>	<b>923.059.014</b>	<b>807.650.848</b>

Dirusarrerak	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	Guztira	Guztira 1990-1996
Tasak eta best. dirusar.	31.088.375	35.415.688	40.373.897	46.305.819	43.314.150	55.319.215	52.526.960	63.556.149	367.900.253	336.811.878
<b>Guztira</b>	<b>31.088.375</b>	<b>35.415.688</b>	<b>40.373.897</b>	<b>46.305.819</b>	<b>43.314.150</b>	<b>55.319.215</b>	<b>52.526.960</b>	<b>63.556.149</b>	<b>367.900.253</b>	<b>336.811.878</b>

**IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.****IV.I NAFARROAKO GOBERNUAREN GASTU ETA DIRUSARRERAK ETA HORIEN APLIKAZIOA.**

1989ko ekainaren 14an Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean sinaturiko behin-behineko akordioaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak Iruñeko espetxeko langileria, erosketari eta inbertsioei dagozkien hainbat gastu bere gain hartzen aritu da.

1996an bere plantilako sei funtzionario mantendu ditu zerbitzua ematen espetxe horretan, eta, postu hutsak betetzen zein oporren ondoriozko ordezketak egiten, zortzi aldi baterako langile. Horrez gain, Justizia Ministerioko funtzionario diren espetxeko langile jakin batzuei lansariak ordaintzen dizkie. Langileria-kontzeptu hauek 1996an 22,3 milioi pezetako gastua erakarri dute (txosteneko V.1. idazatia).

Bestalde, Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen ditu erosketak, elikadura, ura, gasa, elektrizitatea, berokuntza eta beste kapitulu batzuei egotzitako hainbat gastu, 1996an 79,9 milioi pezetakoak izan direnak (txosteneko V.2. idazatia); presoei espetxea konpondu eta mantentzeko lanak egiteagatik lansari txiki batzuk ordaintzen dizkie, 1996an 1,4 milioioak izan direnak (txosteneko V.3. idazatia) eta espetxean inbertsioak eta konponketak egiten ditu, honengatik 22,8 milioi ordainduz (txosteneko V.4. idazatia).

Dirusarrerei dagokienez, Justizia Ministerioari espetxeko egonaldien ondoriozko elikadura kontzeptupean 55,4 milioi pezetako zenbatekoa kargatu dio 1996an, eta, urte horretan bertan, 8,1 milioi Iruñeko Udalarari.

Justizia Ministerioarekin izenpeturiko Hitzar-menaren dataz geroztik (1989-1996 urteak) gastu eta dirusarrera-kontzeptu hauen zenbateko meta-tua honakoa da (txosteneko III. idazatia):

Gastuak	Pezetak (milioika)
Langileria	198,8
Erosketak	568,8
Ohiko Transferentziak	8,5
Inbertsioak	147
<b>Guztira</b>	<b>923</b>

  

Dirusarrerak	Pezetak (milioika)
Justizia Ministerioa	273,1
Iruñeko Udala	94,8
<b>Guztira</b>	<b>367,9</b>

Aurreko lerroaldeetan aipaturiko eta Nafarroako Gobernuak ordainduriko gastu eta dirusarreren azterketa eta ikuskapenetik abiatuz, honako **ondorio hauetara iristen gara:**

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak arrazoizko modu batean egiten du Iruñeko espetxerako ekarpen gisa egiten diren gastu eta dirusarreren kontrola. Hala ere, zera nabaritu dugu gure azterketaren ondorioz:

- Duela hainbat urtez geroztik Iruñeko espetxean zerbitzua ematen duten Justizia Ministerioko funtzionario jakin batzuei aparteko lansariak ordaintzea, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko ebazpenen bidez, horien zenbatekoa 1996an 1.165.963 pezetakoa izanik. Gure ustez, lansari hauek ez dute legezko oinarri egokirik.

- Praktikan, Nafarroako Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko 1989ko hitzarmena aplikatzearen ondorioz, badira hamar urte baino gehiago espetxean instalazioak hobetzeko inbertsiorik ez dela egin.

Aurreko lerroaldeetan azalduko ondorioak kontuan izanik, zera gomendatzen dugu:

- *Justizia Ministerioko hainbat funtzionario-langileri ematen zaizkion lansarien egokitasuna azter dadila, gure ustez gaur egun ez baitute legezko oinarri egokirik.*

- *Espetxe-arloan Estatuak Nafarroari eskumenak eman bitartean hitzarmen berri bat negoziatzea eta gaurkotu dadila Estatuarekin, espetxean egin beharreko hobekuntzak aurreikusiz.*

#### IV.2. NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA FORU KOMUNITATEKO UDALEN ESKUMENAK ESPETXE-ARLOAN ETA BI ALDERDIEK ESPETXE-GASTUAK ORDAINTZEN LAGUNTZEKO DITUZTEN OBLIGAZIOAK, ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA ESTATUKO JUSTIZIA MINISTERIOAREN 1989KO AKORDIOAREN INDARRA.

Espetxe-arloko transferentziarik oraindik ez zaio egin Nafarroari; hala ere, badira urteak Nafarroako Foru Diputazioak probintzia-espexeko finantzaketa-gastuetan parte hartzen duela, eta, neurri eta eduki ezberdinekin, espetxe horretako hainbat alderdiren kudeaketan ere.

Dena den, Nafarroa eta Estatuaren artean 1990eko hitzarmen ekonomikoa sinatu zenetik, sistema berri bat ezarri zen Nafarroak Estatuari egin beharreko finantza-ekarpena zehazteko, "Foru Komunitateak bere gain hartu gabeko Estatuaren kargen" arabera.

Nafarroako Gobernuak Ogasun Departamentuan egiaztatzen digutenez, Nafarroak Estatuari ordaintzen dion kupoa zehaztean ez ziren kontuan hartu Iruñeko espexean Nafarroako Gobernuak bere gain harturiko gastuak, 1996an 71 milioi pezetakoak izan zirenak. 1990etik (hitzarmenaren data) 1996ra bitartean metaturiko gastua 554,7 milioi garkoia izan zen, Ministerioari kargaturiko kopuruak kendu ondoren.

Toki-entitateei dagokienez, hauek ez daukate espexe-arloan eskumenik, eta espexeei eragindako gastuak inolako kopurutan ordaintzera ez daude behartuta. Hau Iruñeko udalerriri aplikatzen daki, 1989tik 1996ra bitartean (hauek dira gure txostenean jasotako ekitaldiak) Nafarroako Gobernuak lege-babes egokirik gabe kargaturiko 94,8 milioi hartu baititu bere gain.

Aurreko lerroaldeetan azalduko ondorioak kontuan izanik, zera gomendatzen dugu:

- *Foru Komunitateko Administrazioak (Ogasun Zuzendaritza), Estatuarekin sinaturiko hitzarmen ekonomikoaren barruan, 1989ko aldi baterako akordioa 1990etik aurrera (Estatuarekin egindako hitzarmena indarrean sartu zen urtea) aplikatzeak eragindako kostuei dagokienez bere interesen babesa bermatzeko egoki den negoziatio-prozesua has dezala.*

- *Iruñeko udalari "espexeko egonaldiak" kontzeptupean ordainarazteko ohiturari buruzko gogoeta bat egin dadila, udalek ez baitute gastu hauei aurre egiten laguntzeko obligaziorik, eta Udalarekin egoki den negoziatio-prozesuari ekitia, hala erabakitzen bada, legezko oinarri egokirik gabe bere gain hartu dituen gastuak hari ordaintzeko.*

#### V. 1996KO EKARPEN ETA DIRUSARREREN ANALISIA.

##### V.1. LANGILERIA GASTUAK.

Zerbitzuak Iruñeko espexean ematen dituen Nafarroako Gobernuak langileriaren gastuen xehapena hau da:

Proiektua	Aurrekontu-lerroa	Zenbatekoa pezetatan
24001	Bergizarteratzeko ekintza zuzenak	
	Funtzionarioen guztizko ordainketa finkoa	14.444.025*
	Gizarte Segurantzak	1.150.652*
	PFEZ konpentsazioak	935.853
	Zuzendarientzako lansaria	230.110
	Atal honetan, guztira	16.760.640
20.000	N.G.O.I.ko Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	
	Aldi baterako langileen kontratazioak	1.134.290
	Ordezketak	3.253.314
	Gizarte Segurantzak	1.131.109
	Atal honetan, guztira	5.518.713
	Guztira	22.279.353

\* Sorturiko benetako zenbatekoa, aurrekontu-betetzearekin bat ez datorrena, honek ez duelako kostu guztia jasotzen.

Foru Komunitateko Administrazioaren plantila organikotik jasotako informazioaren arabera, 1996ko abenduaren 31n Iruñeko espexean zerbitzuak ematen zituzten langileak honako hauek ziren: kaperau bat, sukaldari bat, sukalde-laguntzaile bat eta hiru zerbitzari.

Dena den, postu-kopuru osoa zazpi da, sukaldari-postu bat hutsik dagoelako. Langile funtzionario hauen kostua Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko (hemendik aurrera, NGOI)

“Bergizarteratzeko ekintza zuzenak” proiektuari egozten zaio.

Gainera, 1996an zehar, aldi baterako langileria-araubidean zortzi pertsonak eman zituzten zerbitzuak espetxean, lanpostu hutsak betetzen, opor-ordezketak egiten eta lanerako ezgaitasun iragankor baten ondoriozko ordezketak egiten, eta horien kostua NGOko “Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak” proiektuari egozten zaio.

Bestalde, lehenengo proiektuaren barnean, espetxeko langile jakin batzuei ordainuriko kopuru batzuk agertzen dira. Langile hauek ez dira Nafarroako Gobernuak, Iruñeko espetxeari atxikiriko Justizia Ministerioak funtzionarioak baizik. Gastu horiek ondokoak dira:

	Zenbatekoa pezetatan
PFEZ, konpentsazioa	935.853
Zuzendarientzako lansaria	230.110

Lehenengo kontzeptua bost jasotzailerik ordaintzen zaie, ordainketa bakar batean, Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiaren ebazpen baten bidez, 1995 arte, eta urte horretatik aurrera, NGOko zuzendari kudeatzailearen ebazpenez, oinarri juridiko argirik ez duen orain dela hainbat urteko ohitura bati jarraituz.

Zuzendarientzako lansaria espetxeko langile jakin batzuen alde hilabetero eginiko ordainketei

dagokie. Horren jatorri juridikoa, aurreko kasuan bezalaxe, ez dago argi.

Horri buruz, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurri buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko 23. artikulua funtzionarioei zein kontzepturengatik bakarrik ordain dakiekeen ezartzen du, eta aurreko lerroaldeetan aipaturiko lansari-motak horien artean ez dira agertzen, ez espreski ez inplizituki. Bestalde, Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateraiezintasunei buruzko Legeko 1.2. artikulua debekatu egiten du Administrazio Publikoen eta horien menpekoak diren enteen aurrekontuen kargura soldata bat baino gehiago hartzea.

Azaldu duguna dela-eta, Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren eta Justizia Ministerioaren arteko aldi baterako akordioak legeek xedaturikoa guztiz aplikatzea ezin duela eragotzi pentsatzen dugu, eta, zalantzaren bat baldin balego, bertako 1.c) klausulak “funtzio publikoaren arloan indarrean dagoen legedia” errespetatzea galdatzen du. Ordainsari hori hartzeak, bere forma eta izena edozein direla ere, ez du behar bezalako legeko oinarririk.

## V.2. OHIKO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN EROSKETAK.

Kode ekonomiko honi egotzitako eta Nafarroako Gobernuak ordaindutako gastuen xehapena hauxe da:

Kontzeptua	Aurrekontu bateratua	Betetzea	Betetze %a	Kapitulu guztiaren %a
Eraikinen mantenua	6.115.000	5.977.059	97,7	7,5
Bulego-materiala	1.145.000	1.102.949	96,3	1,4
Elikadura	40.711.000	40.657.019	99,9	51
Botika	7.378.000	7.372.760	99,9	9,2
Hainbat gastu	660.000	510.363	77,3	0,6
Kultura- eta aisialdi-jarduerak	1.846.000	1.804.141	97,7	2,3
Ura, gasa, elektrizitatea	10.337.000	10.136.520	98,1	12,7
Berokuntza	6.503.000	6.449.486	99,2	8
Garbiketa	3.374.000	3.353.936	99,4	4,2
Arropa eta oinetakoak	1.702.000	1.694.844	99,6	2,1
Hainbat material	863.000	798.716	92,6	1
<b>2. kapitulua, guztira</b>	<b>80.634.000</b>	<b>79.857.793</b>	<b>99</b>	<b>100</b>



Erosketen sailean zerrendaturiko kontzeptuen kudeaketa espetxean bertan egiten da, NGOlaren menpean dauden zentroen eredia jarraituz.

Espetxean kutxa finkoko fondo bat daukate, 450.000 pezetako gehieneko muga daukana, eta zenbateko txikiko ordainketetarako erabiltzen da. Kutxa hau lau hilabetero banketxe-laburpenekin egokitzen da.

Dakusagunez, kapituluko guztizko gastua 79,9 milioi pezetakoa da. Kontzepturik garrantzitsuena elikadurarena da, kapituluaren % 51 osatzen baitu, 40,7 milioiko zenbatekoarekin.

Erosketa-epigrafe nagusietako kontrol-prozedurak egiaztatu ditugu, eta ez dugu salbuespen esanguratsurik aurkitu.

Gainera, lagin bat hartu dugu elikadura-epigrafetik, hauxe baita epigrafean kopuruaren aldetik garrantzi handiena daukana, ezarritako prozedura betetzen dela egiaztatzeko; alegia, badela faktura bat kontabilizaturiko zenbatekoa eta egoki diren baimenak dituen, eta fakturaturiko zenbatekoa emate-agiri bidez ziurtatua dagoela; azken honetan espetxeko arduradun batek emandako harrera-uneko adostasuna agertzen da.

Azterturiko laginetik, **honako ondorioetara iritsi gara:**

- Kasu guztietan, aurrekontu- eta denbora-egozpena zuzena da.
- Kontabilizaturiko zenbatekoa ziurtatzen duen eta behar bezalako adostasuna adierazia duen faktura edo justifikazio-dokumentu egokia kasu guztietan badago.
- Azterturiko erosketa ia guztietan fakturretako zenbatekoak ziurtatzen dituzten emate-agiriak badaude, horiek egotea beharrezkoa den kasu guztietan.

1996tik aurrera erosketa hauek NGOlari zentralizatu dira, eta urte honen amaieran izakinen kontrola hobetzeko biltegi txiki bat eraikitzea aurreikusten da.

### V.3. OHIKO TRANSFERENTZIAK.

NGOlak espetxerako duen gastu-aurrekontuko ohiko transferentziei buruzko kapituluak duen 1,3 milioi pezetako zenbateko guztia "Bergizarteratzeko ekintza zuzenak" proiektuaren barneko "presontzako lansaria" kontzeptuari dagokio; horrek presoei lankidetzaren lanak (sukaldea, garbiketa, igeltserotza-lanak eta abar) egiteagatik ordainduriko kopuruak jasotzen ditu.

Lansaria hamabost egunean behin ordaintzen da, kutxa finkoko fondoan bidez.

1996ko otsailean eta urrian ordainduriko kopuruak berrikusi ditugu, eta hilabete horietan kontabilizaturiko kopurua onuradunek sinaturiko ordainagiriaren bidez behar bezala frogatuta dago. Espetxeko administratzailearen eta NGOlko Afera ekonomikoen ataleko buruaren oniritzia ere badute.

### V.4. INBERTSIOAK.

Espetxerako inbertsioen kapituluan kontabilizaturiko kopuruak bi proiektutan jasota daude: NGOlaren "Bergizarteratzeko ekintza zuzenak" izenekoan eta Gizarte Ongizateko Departamentuaren "Azterketak eta inbertsioen plangintza" izenekoan.

1996ko ekitaldian buruturiko zenbatekoa 22,8 milioi pezetakoa izan da; horietatik, 3,1 milioi NGOlaren inbertsioei dagozkie eta 19,7 Departamentuaren inbertsioei. Inbertsio-kopuru hau Nafarroako Gobernuak espetxerako bere gain hartu duen gastuaren %18koa da.

Gizarte Ongizateko Departamentua espetxean egiten ari den obrak mantenu-obrak dira. Gehienetan, espetxeko administratzaileak hala eskaturik egiten diren konponketa zehatzak izan ohi dira.

NGOlak eginiko inbertsio-gastuak (3,1 milioi pezeta) altzarien eta tresnen erosketan gauzatu dira.

Erosketen kudeaketa NGOlaren Afera ekonomikoen ataletik egiten da.

Administratzaileak jakinarazten ditu espetxeko beharrezkoak, ekitaldiaren hasieran.

Ez dago inolako lankidetzarik Nafarroako Gobernuaren eta Estatuaren artean zentroa hobetzeko inbertsioak egiteari dagokionean; izan ere, hamar urte baino gehiago igaro dira Estatuak espetxean inolako obrarik egin gabe.

Dirudienez, Iruñeko Espetxea Espetxeen Zuzendaritza Nagusiko espetxe-saretik kanpo dago finantziarioari dagokionez.

### V.5. TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRE-RAK.

Dirusarrera hauek zera jasotzen dute: espetxe-egonaldiak dagozkien Justizia Ministerioaren ekarpenak, "presoen elikadura" kontzeptupekoak, eta honako taula honetan xehaturikoaren arabera NGOlak Iruñeko Udalarari egiten dion fakturazioa:

Urtea	Justizia Ministerioaren dirusarrerak	Iruñeko Udalaren Dirusarrerak	Guztira
1989	20.169.033	10.919.342	31.088.375
1990	23.065.302	12.350.386	35.415.688
1991	27.268.629	13.105.268	40.373.897
1992	26.845.018	19.460.801	46.305.819
1993	32.275.146	11.039.004	43.314.150
1994	43.165.876	12.153.339	55.319.215
1995	44.876.236	7.650.724	52.526.960
1996	55.438.150	8.117.999	63.556.149
Guztira	273.103.390	94.796.863	367.900.253

Estatuko Administrazioari (Justizia Ministerioa) elikadura-kontzeptupean bakarrik fakturatzeko zaio; 1996an espetxeko preso guztiek eginiko egonaldien %90a biltzen zuen preso-talde bateko jasotako errazioei Ministerio horrek onarturiko baloreak aplikatuz egiten da kalkulua.

Justizia Ministerioari fakturatzeko zaion kopurua egonaldien eta onetsiriko prezioaren arabera espetxeak jakinarazten duena da.

Iruñeko Udalari hiriburuko zein probintziako Instrukzio Epaitegien esku dauden presoekin egonaldien arabera egiten zaio faktura; horiek 1996ko egonaldi guztien % 9,9a osatzen dute, egonaldi horiek honela balioztatuz: gastu-kontusailen zenbateko burutua ("funtzionarioen ordainketa finkoa", "gizarte-segurantza", "PFEZ konpentsazioa", aldi baterako langileen kostua eta Gizarte Ongizateko Departamentuaren "azterketak eta inbertsioen plangintza" proiektuari egotzitako inbertsioak izan ezik) espetxeko egonaldi-kopuru osoaren artean zatituz.

Justizia Ministerioari fakturaturiko kopurua bezalaxe, Iruñeko Udalari fakturaturikoa ere espetxetik kalkulatu da.

Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legeko (TAOL) 26. artikulua eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko (TAFL) 29.ak aurreikusten dutenaren arabera, udalerriek ez dute ezin eskumenik espetxe-arloan. "Inolako espetxerik ez dagoen" partidu judizialeko buru diren udalerriek soilik hartuko dute beren gain, delegazio-araubidepean, epailearen esku dauden atxilotuak edukitzeko zerbitzua (TAOLEko 5. bukaerako xedapena); baina, kasu horretan, zerbitzuaren mantenua eskudun den espetxe-administrazioak finantzatu du, aipatu bukaerako xedapenaren arabera eta abenduaren 12ko 2715/1986 Errege Dekretuan ezarritako moduan.

Aipaturiko salbuespenarekin, Nafarroako udalerriek -toki-araubideko legediaren arabera- ez dute eskumenik espetxe-arloan, eta ez dute inolako obligaziorik espetxeek eragindako gastuak finantzatzeko. Hau guztiz aplikagarria zaio Iruñeko udalerriri, ez TAFL-ek ez bestek ez duelako inolako salbuespenik aurreikusten.

Iruñea, 1997ko ekainaren 23a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 165 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--